

Goienkara

EGUBAKOITZA • 2005eko uztailaren 1a • V. urtea • 206. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



DEBAGOIENA

Kilometroak'05ek eta Goienak hitzarmena sinatu dute /4

FELIPE ANTONIO IGARTUA / APPALDE

"Pentsioen gaiak jorratzen dituztenean han egon nahi dugu, geure eskubideak defendatzeko" /7

KIROLA

Tourraren gaineko bloga 'goiena.net' webgunean /10

Gurpildun aulkian, urrutira bidaiari

Gutxitasun fisiko handiak izatea ez da arrazoa gustuko ekintzak ez egiteko, berdin ekintza horiek lasaiek edo mugimendu handiagokoak izan: bidaiak luzeak, adibidez. Jon Escobales aretxabaletarra (argazkian) eta Aritz Bikuña bergararra gutxitu fisikoak dira, gurpildun aulkian daude biak, baina horregatik ez dira etxean gelditzen: hala, Jonek Indiarra bidaiatu zuen iaz, eta, esperientziarekin pozik, Kubara joateko prestatzen ari da; Aritz Marokora joan zen orain 9 urte, eta Patagoniara orain dela lau.

Bi lagun horiek onartzen dute bidaiak horietan oztopak aurkitu zituztela, baina ez herrian edo autobusean ibiltzeko dituztenak baino askoz handiagoak. /13-15

ARGAZKIA: JON ESCOBALES

Goienka2a



ASTEKO GAIA: GLUTENARI INTOLERANTZIA

Gaixotasun zeliakoa

Gaitz zeliakoak –glutenari intolerantziak– 430 bat debagoien-darri eragiten die. Eguneroko bizitza baldintzatzen die, dieta berezia egin behar dutelako.

Hala eginda, bizimodu normala egiten dute. Hortaz, diagnosi goiztiarra ezinbestekoa da, dieta egokia egin ezean, ondorioak oso larriak direlako. /2-3

Bi debagoiendar, sailburu eta diputatu berrien artean

Ingurumen sailburu izendatu du oraingo astean Lehendakariak Esther Larrañaga (EA) arrasatearra. Bestalde, Rafael Uribarren (EAJ) arrasatearra izenda-

tu dute Gipuzkoako Landa Ingu-runearen Garapenerako diputatu, Garraio sailburu izendatu berri duten Nuria Lopez de Gereñuren ordez. /4



Esther Larrañaga, sailburu berrietako bat.



Rafael Uribarren diputatu izendatu dute.

Kamera hau nahi? Zoaz 12. orrialdera.

RKUZ ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Tel/Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

SUHALDE INTEGRALA
Miharte 3
Tel/Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR
CENTRAGAILUAK
expert

ETXE MOBEL
MUEBLAS
ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Tel/Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

Txina 05 uda
Ezagutzeko modukoa!

Zatoz: Arrasate Bidaietan neurriko bidaiak prestatuko dizugu.

Informa zaituz gure beste eskaintzez ere!

Arrasate Bidaiak
05.05.2014
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

ARRASATE BIDAIAK
Kontzezio kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es

Zeliakismoari aurre egin kontzientziarioari esker

Debagoiengan 430 lagunek dute gaitz zeliakoa, hau da, glutenari intolerantzia



~~ezgaitua da~~

Bere burua gainditzeko gai izan da.
Profesional ona izateko gai.
Lagunak egiteko gai.

~~ezgaitua da~~

Bere aurreiritziak gainditzeko gai izan da.
Bere konfiantza emateko gai.
Bere denbora eskaintzeko gai. Bera kontratatzeko gai.

LEIRE KORTABARRIA

Zeliakoez dirulaguntzak eta produktuak erostera-koan segurtasuna eskatzen dituzte. Aldarrikapen horiek egin dituzte aurten-go Zeliakoen Nazioarteko Egunean, ekainaren 27an. Izan ere, gaixotasun hori dutenek, dieta egokia eginez gero, bizi-modu guztiz normala egiten dute, baina dieta jakin hori egitea ez da gauzarik errazena.

Zeliakoen gaitza da glutenari tolerantziarik eza. Glutena da proteina bat, garian, zekalean eta, beharbada, oloan (abena) dagoena. Hori jateak heste meharrean min egiten die zeliakoei, eta glutena dietatik ez kentzeak ondorio larriak ditu: minbizia, osteoporosia, abortuak... izan ditzakete.

Debagoiengan 430 zeliako inguru dago, eta produktuen garestitasunak, behar adinako informazioa ez egoteak... ere eragiten die. Baina horri aurre egiteko, FACE (Espainiako Zelia-

Elikagaien ziurtagiria

Glutenik gabe eginda bezala komertzializatzen diren produktu guztiak ez dira ziurrak; batzuek, oso kantitate txikian bada ere, glutena daramate, eta zeliakoak sentiberatasun altua badu, edo elikagai horretatik asko edo oso jarraian jaten badu, berriro gaixotuko da.

Hori ikusita, FACEk, Estatuko zeliakoen elkarte-en federazioak, azpiko logoa asmatu du, eta horrekin bereizten ditu benetan glutenik ez duten elikagaiak. Sarri egiten dituzte produktu berrien analisiak eta ziurrak diren edo ez jakinarazten dute argitalpen baten, edo www.celiacos.org euren webgunean.

Pertsona ezgaituen integrazio soziala guztion eginkizuna da.

eta zu, ~~ezgai~~ al zara?



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa





LEIRE KORTABARRIA

Gurean ere, gero eta okindegi gehiagok dute zeliakoendako ogia.

koen Elkarteen Federazioa) taldearen babesa dute.

JANARI BEREZIAK

Zeliakoendako ez da nahikoa ogia, bizkotxoak, gailetak, pasta... dietatik kentzea; izan ere, glutena sarri erabiltzen da jaki aurrefabrikatuetan. Berori izan dezakete hestebeteek, urdaitegi-ko produktuek, gazta eta pate batzuek, okela eta arrain kontserbek, gozokiek, fruitu lehorek, izozkiek... Kutsadura arriskua ere badago: zeliakoendako elikagai bat ezin da prestatu glutena duten lehengaiekin kontaktuan egon diren tresnekin.

Batetik, beharrezkoa da produktuen etiketak irakurtzea, baina Espainiako legeak ez du behar izan osagai guztiak jakinarazte- ra. Bestetik, euren bereziki egindako produktuak oso garestiak dira: gaileta kilo 30 bat euro da; ogi kilo, 9 euro; makarroi kilo, ia 7... Europako Batasuneko herri gehienetan, elikagai horiek Gizarte Segurantzak estaltzen ditu edo dirulaguntzak ematen dira; gurean, ordea, ez.

Hala ere, produktuok ondo saltzen dira. Hor ere, asko aurreratu da urte gutxian: Amaiak, Bergarako 12 urteko zeliakoak,

diosku Bartzelonatik ekartzen zituztela beretako janariak; Zihortza Marzanek Gasteizera joan behar izaten zuen eguneko ogia erostera. Orain, Debagoieneko supermerkatu, belar-denda eta okindegi batzuetan badaude zeliakoendako ogia, pasta...

ELKARTEA, EZINBESTEKOA

Inori gaitz hori diagnostikatzen zaionean, medikuak FACE zeliako-

koen elkartera bideratzen du: "Elkarreak ematen die informazio osatuena, elikaduraren gaineko liburu batekin, eta ona da gaixoak elkartera joan daitezela", dio Deba Garaiko Ospitaleko Calvo doktoreak. Zeliako debagoiendarrak FACE elkartero kide dira. Ibarreko zeliakoek elkarrearen bidez lortu dute informazio guztia, eta horri esker egin diote aurre gaixotasunari.

Elkarre horrek lagundu du gero eta informazio eta kontzientziario handiagoa egon dadin. Hala, jatetxeak kontzientziatuzkoak daude. Debagoieneko ikastetxeetan ere ikasle zeliakoendako menuak daude. Ibarreko ume zeliako batzuek eurek eramaten dute janari gordina -pasta, ogia...-, eta eskolan euren prestakuntza dute.

Zeliakoek bizimodu normala egin dezakete, baina kontzientzia izan behar dute euren dietaz. Arantzazu Arantzabalaren semeak, Aitorrek, 5 urte ditu eta zeliakoa da. Umeak badaki ezin dituela zenbait janari hartu: "Lagunei esaten die bera berezia dela. Orain oso ondo darama; ogitar-tekoak eta jateko garaia iristen denean, hori ere ikasi egin behar-ko du", dio.

Glutena dute gari eta zekalezko jaki guztiak, baina beste askok ere izan dezakete

Ez da tratamendu medikorik behar: dieta egokia eginez gero, bizimodu normala egiten dute

ZIHORTZA MARZAN / ZELIAKOA

"Jatetxeek sentsibilitate handiagoa daukate orain"

Zihortza Marzan 24 urteko bergararrari orain dela 9 urte antzeman zioten gaitz zeliakoa. Orduz geroztik zeliakoendako egoerak hobera egin duela diosku.

Zelan antzeman zizuten gaixotasun hori?

Karaktere arazoak nituen, eta azaleko gaitzak ere. Gainera, gaixotasun horrek beste gaixotasun batzuk sortzen ditu. Niri beste gaixotasun batengatik egindako analisi batzuetan antzeman zidaten.

Zelan gogoratzen duzu hasierako egoera?

Erabat galduta nengoen, eta medikuak ez zidan behar adina informaziorik eman: jan ezin nituen lau gauza esan eta zeliako-koen elkarrearen telefonoa eman zidan. Osasun zerbitzua- ren jarrera lotsagarria izan zen. Elkarreak lagundu dit gehien: urtero liburu bat ateratzen dute jan ditzakegun eta ezin ditzakegun produktuekin.

Zer da gogorrena?

Etxean badakite zer dudana eta jaten dudana guztia kontrolatzen dut, baina kanpoan jatea arazoa da. Hala, patata friji- tuak ekartzen badizkirate, eska- tu behar diet olio garbian egi-



teko... Orain gutxiago harritzen dira eta gero eta sentsibilitate handiagoa dago; lehen uste zuten kapritxo-edo eskatzen nituela gauzak.

Zeliakoendako produktu bereziak erosteko lekuak badaude?

Orain, bai: okindegi eta supermerkatu batzuetan, belar-dendetan... Gero eta produktu gehiago dago: iaz, zeliakoendako txurroak eta guzti topatu nituen! Oso garestia da, hori bai: hala, zeliakoendako ogitxo bat 1,50 euro da; pasta kilo, 6 euro... Nik esaten dudana da aberatsen gaixotasuna dela hau. Gizarte Segurantzak ez du gaitz hau ordaintzen, eta dirulagun- tzarik ere ez dago.

Gaitz zeliakoa, labur

ZEINEK IZAN DEZAKE?

Genetikoa denez, edozeini egoki dakiok. Baina urte asko joan daitezke antzeman barik, edo hel- dutasunean has daiteke.

ZEINTZUK DIRA SINTOMAK?

Diarrea kronikoa eta goraka egitea, osatzen ez den anemia, karaktere aldaketa, abortuak... Sintoma bakarra ere gerta daiteke.

ZER EGIN BEHAR DUT?

Zeliakoa zarela uste baduzu, familia-medi- kuarengana jo. Odol-

analisiek eta, batez ere, biopsiak, lagunduko dute diagnostikoa egi- ten. EAEko zeliako-koen elkarrea laguntza handi- koa da: 94 416 94 80 da euren telefona.

ZEIN ONDORIO DITU GAITZAK?

Glutena dietatik guztiz kenduz gero, zeliakoak bizimodu normala egin- go du. Zeliakoendako produktu bereziak daude. Horrez gain, beti irakurri behar dira pro- duktuen etiketak, baina kontuan hartuta infor- mazioa falta daitekeela.

0 km eta erabilitakoak

Volkswagen Multivan TDi /00
Volkswagen Multivan TDi /99
Ford Transit TDCi /01
Ford Transit TDCi /02
Peugeot 307 HDi /02
Peugeot 306 HDi /01
Peugeot 206 HDi /01
Ford Focus Wagon TDi /02

Ford Focus Wagon TDi /02
Toyota Wagon DHD /02
Ford Galaxy TDi /02
Citroën Berlingo HDi /02
Seat Ibiza SDi /02
Ford Fiesta TDCi /04
Subaru Imp 2.0i TT /97

4x4:

Toyota Land Cruiser /99
Toyota Land Cruiser /01
Toyota Land Cruiser /00
Mitsubishi /98
Opel Frontera Sport /02

Bikar

M MENDIOLA

San Andres 10 D
Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE

Uda Ikastaroak Matrikulazioa zabalik!

AKADEMIA

BASTIDA

Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es

Internet
Informatika
Programazio informatikoa
Mekanografia
Autocad
Photoshop, Freehand
Dreamweaver, Flash
Laguntza eskolak: Ingenieritza,
Enpresa Zientziak, Batxilerra, DBH
(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

Kooperatibek globalizazioaren aurrean dituzten erronkak aztergai

Oñatin egin dituzte jardunaldiak kooperatibetako hainbat adituk

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mondragon Unibertsitateak antolatuta jardunaldiak izan dira egunotan Oñatin. Jardunaldiotan adituek aztertu dute kooperatibek globalizazioaren aurrean daukaten egoera eta aurrerantzean zein erronkari aurre egin behar dieten.

Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean elkartu dira eguaztena eta egubakoitza bitartean kooperatiben inguruko hainbat aditu. Arrasateko kooperatibismoa globalizazioaren erronken aurrean izenburupean jardunaldiak egin dituzte. Jardunaldion helburua izan da aztertzea nola aurre egin dakiekeen globalizazioak eragindako aldaketei.

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak eta LKS Aholkularitzak antolatu dituzte jardunaldiak.

Hainbat adituk eman dituzte hitzaldiak, hala nola: Jesus Catania MCCko presidentek; Jose Maria Ormaetxea, Javier Mongelos eta Antonio Cancelo presidente izandakoek; Iñazio Irizar Mondragon Unibertsitateko irakasleak; LKS Aholkularitzako Fermin Garmendiak edo Josu Ugarte Wrozamet SA enpresakoak. Ulma, Irizar, Eika, Copreci eta Dikar enpresetako ordezkariak ere hitz egin dute.

Hitzaldiak entzuteaz gain, Ulma Packaging, Ikerlan eta Geyser-Gastech enpresetara bisitak egin dituzte jardunaldietan parte hartu dutenek.



Eikako Leire Mugertza eta jardunaldien zuzendari Iñazio Irizar.

ADITUAK HIZLARI

Antonio Cancelok globalizazioaren gaiari buruz galdetuta zera esan zuen: "Kooperatibek ulertu behar dute globalizazioa ez dela moda kontua eta eragina izango duela euren jardunean. Ondoren erabaki beharko da bide beretik segi edo aldatu. Nire proposa-

mena da aldaketa sakonak egitea, arlo kulturaletik hasita. Aldaketa gure buruan egin ezean zaila baita estrategiak aldatzea".

LKSk Fermin Garmendiak teknologia berriak izan zituen hizketarako gai. "Hainbat kooperatiba, munduan, teknologia berririk gabe gestionatzea ezinezkoa da. Beraz, erronka da kooperatiba horiek sare batean sartzea teknologia berriak erabiliz".

Mexikoko esperientzia bat azaldu zuen Eikako Leire Mugertzak eta prozesuaren garrantzia azpimarratu. "Hemengo balioak ezartzen jakin behar da kanpoko lantegietan. Kooperatibak beste inguru eta kultura batzuetan eratzek eragina du globalizazioan".

Jardunaldietan aztertu dute nola erantzun globalizazioak eragindako aldaketei

Bi debagoiendar izendatu dituzte sailburu eta diputatu

ENEKO AZKARATE

Esther Larrañaga (EA) izango da debagoiendar sailburu bakarra, baina guraso bergararrak dituen Miren Azkaratek ere segituko du Kultura sailburu izaten. Esther Larrañaga Justizia sailburu-orde izan da orain arte Joseba Azkarragaren departamentuan. Lehenago Ingurumen Sailean jardundakoa da, Gipuzkoako Kultura zuzendari izandakoa da eta baita legebiltzarkide Gasteizen eta parlamentario Madrilén.

Rafael Uribarren (EAJ) arrasatearra da, baina Anoetan bizi da azken urteotan. Legebiltzarra aukeratzeko egin ziren azken hauteskundeetan EAJ-EA koalizioak Gipuzkoan atera zituen hamar legebiltzarkideetako bat da. Aurreko legealdietan ere izan da legebiltzarkide Gasteizen. Eguaztenean hartu zuen kargua. Horrenbestez, bi diputatu izango ditu Debagoienak: Uribarren eta Koldo Azkoitia, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatua. Hura aretxabaleterra da.



Goiena-Kilometroak'05 lankidetzaz hitzarmena

Martitzenean sinatu zuten lankidetzaz hitzarmena Aretxabale-tako Arizmendi Ikastolaren egoitzan Txaro Iraeta Arizmendi Ikastolako zuzendariak eta Inazio Arregi Goienako zuzendariak. Bi zuzendariak baikor azaldu dira. Agirian zehazten da informazioa zabaltzeaz gain, hainbat ekintzatan ere hartuko duela parte Goienak. /GOIENKARIA



Sentsazioen askatasuna

Sofa edo besaulki bat erosi baino lehen, Stressless® bat proba ezazu. Plus Sistema™ eskusiboari esker, Stressless® sofa eta besaulkiek mugimendu askatasun paregabea eskaintzen dizute. Erabateko konforta da, eta kontzesionarioan duzu zain... Ez beste inon. Probatzera etor zaitez zure kontzesionarioa, eta konforta inoiz baino eskura errazagoa dela ohartuko zara.



www.ekornes.es

Sofak eta besaulkiak

Noche y Dia

Morfeoren besoetan

Atsedon Etxea

Adriano VI, 17 • GASTEIZ

Tel./Faxa: 945 21 42 24



Herri Lagunak 6, behea
Bergara • Tel: 943 76 05 24

% 40

Aprobetxatu aukera!





JUAN ANTONIO MIGURA

Arrasateko eta Bergarako alkate ohien ondoan jardun zuen martitzeneko prentsaurrekoan 18/98+... plataformako bozeramaileak.

18/98ko epaiak "sentsazio gazi-gozaak" utzi dizkie plataformakoei

Garzonek eraikitako tesia "azukre koskor bat bezala urtzen doa" diote

ENEKO AZKARATE

Debagoieneko 18/98 eta gehiago plataformak askotariko kideek pozik hartu dute Jarrai-Haika-Segi auzian emandako epaia. Oraingo astean eman dute auzi horren gaineko balorazioa.

Epaiak sentsazio gozoa utzi die la aitortu du Maite Aristegi bozeramaileak, baina epaiaren ostean sortu diren hainbat erreakzio —Madrilgo klase politiko, judizial eta hedabideen artean— "nola-baiteko mikaztasuna" ere utzi die la.

Aristegik nabarmendu du ezarri zaien espetxe zigorra bete-

ta dutela gazteek eta "hori ona dela". Hala ere, adierazi du epai-keta erabili dutela gazteak zigortzeko: "Fiskalak eskatuta zeukarekin konparatuta zigortzea txikia dela uste arren, benetan zigor gogorak dira, frogatutako delituri ez dagoenean", adierazi du.

Bestalde, adierazi du argi geratu dela Garzonek eraikitako tesi nagusia, dena ETA dela, "behera etorri dela, azukre koskor bat bezala urtzen doala". Baina, era berean, ezin dela ahaztu "epaiak frogatzen hartzen dituela Guardia Zibilak egindako txostenak". Txosten horiek hurrengo etorriko diren sumarioetan oinarritzat hartuko dituztela esan du eta "horregatik kezkatuta" daudela, "frogatutako

tratu txar eta torturen ondorioz egindako txostenak direlako".

GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA

Aristegik azpimarratu du oso garrantzitsua izan dela gizartearen parte-hartzea: "Oso modu positiboan hartzen dugu Euskal Herrian erreakzio soziala sortu izana sumario honekiko, eta erreakzio horrek behartu du Madrilgo Auzitegi Nazionala saihebidetza bat topatzera".

Etorrizunean ere "eskubide zibil eta politiko guztien alde lanean" segituko dutela esan du, eta aurreratu du urrian hainbat ekimen bultzatuko dituztela. Bitartean, webgunea abiarazi dute: www.18-98+.org.

Gay eta lesbianek errespetua eta berdintasuna aldarrikatu dituzte

I.A.

Ekainaren 28a gay eta lesbianen eskubideen aldeko nazioarteko eguna izanik, hainbat ekitaldi izan ziren. Hego Euskal Herriko hiriburuetan manifestazio jendetsuak egin zituzten eta ibarrean ere ez zen falta izan eguna gogoratzeko ekintzarik.

Arrasaten, Aralar, Batasuna, Ezker Batua eta Zutik alderdiek deituta kale agerraldia egin zuten 60 bat lagunek. Bertan ziren aipatu lau alderdietako ordezkariak.

Idatzi bat irakurri zuten Arbolapetan, eta, besteak beste, errespetua eta heterosexualekiko berdintasuna aldarrikatu zituzten. Betebeharrak berberak badira eskubideek ere hala behar dutela esan zuten. Bide batez salatu zuten Madrilen familiaren alde

egindako manifestazioaren izaera homofobikoa.

Bestalde, martitzenean, gay eta lesbianen ikur diren trian-

gelu arrosa eta koloretako ostadarra dituen bandera ipini zuten Oñatin, plazako kioskoan, egun hori gogoratuz.

Mazda6. Kirol zaletasuna.

Bikar **M MENDIOLA**

San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE

DEBAGOIENEAN LABUR

Zubillagako abere hiltegia ixtearen aurka agertu dira Gipuzkoako PPko batzarkideak

Gipuzkoako Batzar Nagusietako PPko taldea Zubillagako abere hiltegia pribatizatzearen kontra azaldu da eta EAJ eta EA kritikatatu ditu, "haien jokabideak eskualdeetako abere hiltegi txikien etorkizuna arriskuan jartzen duelako". Zubillagako abere hiltegia zabalik mantentzeko Hiltegia Bizirik plataformak aurkeztu duen txostenaren alde agertu dira PPkoak, "azterketa sakona egin dutelako eta hiltegiaren izaera publikoaren alde egiten duelako". Eusko Jaurlaritzaren okelaren planaren kontra azaldu dira, "produktore handien interesak bakarrik hartzen dituelako aintzat", eta Eusko Legebiltzarrean Zubillagako abere hiltegiaren etorkizunaren aldeko ekimenak bultzatuko dituztela azaldu dute.

Jaurlaritzak bere gain hartzen badu tren azkarraren proiektua, trazatua aldatuko du

Debagoieneko Ezker Batua taldeak aditzera eman duenez, EAJ eta EAekin akordio batera heldu da Ezker Batua, Lastertasun Handiko Trenaren inguruan, hiruko gobernuko ituna sinatzera. Hain justu ere, adostu dute Madrilgo gobernuak esku hartzen badu trenaren proiektuan, *Euskal Y*-a mantenduko dela eta EB kontra azalduko dela. Jaurlaritzak hartzen badu bere gain obra guztia, berriz, EBk bere garaian proposatu zuen trazatu alternatiboa, hau da, *Euskal Y*-aren ordez, *Euskal U*-a hobetsiko dela eta, ondorioz, Debagoienetik ez dela igaroko. Hori horrela gertatuko balitz, Lastertasun Handiko Euskal Trenaren alde agertuko litzateke Ezker Batua.

ez dezala jakin nire nagusiak

"OPORRETARA NOA EROSKI BIDAIAK-EKIN"

(María, Eroski Bidaiak ez den bidaia-agentzia bateko langilea...)

Onar ezazu. Ez duzu ezer hoberik aurkituko. Beharpenak alde batera utzi eta zuzenean preziorik onenak eskaintzen dizkizun agentzia bakarra gara. Egizu proba: sar zaitze EROSKI Bidaiak-en bulego batean, esaguzu nora joan nahi duzun eta paretik ez duen prezioa emango dizugu. Eta garrantzitsuenak: berme guztiakin bidaiatuko duzu.

Etorri EROSKI Bidaiak-era eta ikusi zeure begiz.

Salou	299€
07/16tik 08/5. 8 egun - 7 gau. Eurosalou hotela***. Mantenu erdia. 49.749 Pta	
Gran Canaria	383€
Irteerak: 07/9, 07/14, 07/16, 07/21, 07/23. 8 egun - 7 gau. Beberly Park hotela. Mantenu erdia. 63.726 Pta	
Londres	389€
07/30tik 08/20ra. 5 egun - 4 gau. Hegazkina Bilbotik. Hyde Park Towers hotela. 64.724 Pta	

EROSKI / bidaiak

merezi duzu

www.viajeseroski.es

ANTZUOLA

Tourreko porran parte hartzeko aukera egongo da oraingo asteburuan

Lokatza Ziklismo Eskola-ko Tourreko porran parte hartzeko aukera izango dute antzuolarrek ere. Oraingo asteburuan jarriko dute horretarako aukera. Bihar, zapatua, goizez, Kaxetaren lokalean, 13:00ak arte eta Altzarten 14:00ak arte; arratsaldean, berriz, Altzarten 20:00ak arte eta 19:00etatik 20:30era Zurrategin jarriko duten mahaian. Domekan, berriz, goizez, 14:00ak arte Altzarten eta baita San Martzialen ere. www.nahikari.com/lokatza webgunean duzue informazio zabalagoa. /A.I.



UBANE MADERA

ARRASATE

Bi hektarea baino gehiago erre dira Udala auzoan

Astelehen arratsaldean piztu zen sua Udalan. Segituan hartu zuten abisua suhiltzaileek eta bertaratu egin ziren. Aramaioko eta Oñatiko basozainek, bi kamioi zisterna gehiagok eta auzotarrek lagunduta, 23:30ak arte jardun zuten sua itzaltzen. Baina suhiltzaileek 00:00ak aldera bueltatu egin behar izan zuten, haizeak garrak berpiztu egiten zituen-eta; 04:00ak arte jardun zuten lanean. Eta hurrengo bi egunetan inguru guztia bustitzen eta zaintzen ibili ziren, mendian sikate handia dagoelako eta, batez ere, haize zakarra zebilelako. Eguazten goizean oraindik ere enborrei kea zerien. Sutearen ondorioz, artadi bat eta 40 urteko pinudia erre dira Udala auzoan, guztira, bi hektarea mendi baino gehiago. Hori bai, ez zen zauriturik izan ezta etxerik erre ere. /U.M.

ARAMAIO

Aramaioko euskararen gaineko azterketa egin du Ormaetxeak

Aramaioko euskararen azterketa dialektologikoa egin eta aurkeztu du Txipi Ormaetxea irakasle eta filologoak. Tesi moduan aurkeztu du Gasteizko Filologia Fakultatean eta bikain *cum laude* eman diote.

1996an hasi zen azterketa egiten. 65-70 urtetik gorako Aramaioko zenbait hiztun elkarrizketatu zituen Ormaetxeak. Eta batutako materiala liburu eran argitaratu zuen 2002an (*Aramaioko Euskara*). Orain lan hura osatu egin du, tesirako; eta esan digu akaso aurrerago beste liburu bat argitaratuko duela. /U.M.

ELGETA

Elgeta-Bergara errepidea zabalik kamioiendako eta autobusendako

Gaurtik aurrera berriz ere ibili ahal izango dira kamioiak eta autobusak Elgeta-Bergara errepidean. Azken asteotan lanean jardun dute errepide horretan bi bihurtze hobetzeko: Arantzetakoa eta Ubearakoa. Oraindik lan batzuk falta dira obrak guztiz amaitzeko, baina, uztailearen 29rako lan guztiak amaitzea aurreikusi da. Obra hauekin asko hobetu da errepidea, bereziki, kamioientzat, lehen askotan trabatuta gelditzen baitziren Arantzetako bihurtzeko. /I.A.

BERGARA

23,2 milioi euroko aurrekontua adostu du Udaleko gobernu taldeak

EAJ-EA koalizioaren eta Aralarren aldeko botoekin onartu zuten 2005eko Udalen aurrekontua. Ezker Batua, PSE-EE eta Alderdi Popularrak aurka azaldu ziren asteleheneko udalbatzan. 2005. urterako 23.256.634 euroko aurrekontua izango du Bergarako Udalak. Iazko aurrekontuarekin konparatuz, %5,8 egin du gora.

Udal gobernu osatzen dutenen alderdien artean adostutako aurrekontua izan da. EAJ-EAk eta Aralarrek hainbat puntu adostu dituzte: epe ertain-luzerako planifikazio ekonomiko-finantzarioa lantzea; kirolgunearen proiektua erabat lotzeko BKERekin negoziatzea; ingurumen batzordeari bultzada ematea; auzoetarako plana egitea edo babes ofizialeko etxebizitzak bultzatzea, besteak beste. Halaber, Seminarioko auditorioa bukatu bitartean Novedades aretoa zabalik edukitzeko eskaera egin zuen

Aralarrek, baina ez zen akordiorik egon udal gobernu kideen artean.

KIROLGUNEAKO HIRU MILIOI

Honela banatzen da astelehenean onartutako aurrekontua: Udalak 18,9 milioi euroko aurrekontua izango du, Mizpirualde Egoitzak 2,7 milioikoa, Bihergintzak 1,5 milioikoa eta Udal Euskaltegiak, azkenik, 391.000 eurokoa. Inbertsioen artean, hiru milioi euro aurreikusten dira Agorrosingo kirolgune berrirako.

Udalaren zorpetze maila 13,16 puntukoa izango da. /E.M.

Zertzelada

Inbertsioen artean, garrantzitsuena izango da Agorrosingo kirolgune berria eta horretarako hiru milioi euro aurreikusten dira

OÑATI

Datorren udazkenean hasiko dira Ugarkaldeko etxebizitzak egiten

Plan partziala onartuta du Udalak, eta orain, urbanizazio proiektua jendeak ikusteko dago udaletxean. Okerrik ezean, udazkenean hasiko dira Ugarkaldeko etxebizitzak egiten.

Guztira 300 etxebizitza egingo dituzte Ugarkalden: 195 babes ofizialekoak izango dira; 60 prezio librekoak; 15 tasatuak eta beste 30

familia bakarrekoak. Etxebizitzekin batera, gutxienez 580 autorentako aparkalekuak egingo dituzte: 330 lurpean eta beste 250 etxe blokeen artean. Sukia enpresak egingo ditu lanak. Auzo berri hori eta San Lorentzo lotzeko, errepidea egingo dute Eteo aurretik, eta Irubietako zubia ere berria egingo dute. /O. E.



O.E.

Ugarkaldeko guneak 80.548 metro koadro ditu.

ARETXABALETA

Inkestak egingo dizkiete herritarrei eta merkatariari hurrengo asteotan

Aretxabaleako Merkataritza Biziberritzeko Plana jarri du abian Udalak. Lan hori egiteko Donostiako Ikei enpresa hartu du. Herriko merkataritzaren egoera ezagutzeko lehenengo diagnostikoa egingo du Ikei, eta hori eginda, neurri zehatzak abian jartzeko momentua etorriko da.

Diagnostikoa egiteko herritarren ohiturak ezagutu gura dituzte, eta inkestak egingo dizkiete 200 laguni. Bestalde, merkataria eta ostalarien iritzia ere ezagutu gura dituzte, eta beste 60 langileri egingo dizkiete galderak. /M.A.

ESKORIATZA

Astelehenetik, zirkulazio-arauak gogoragoak izango dira

Astelehenean, uztailearen 4an, hasiko da Udala herrian zirkulazio arauetako ordenantza berria ezartzen. Horrek hainbat aldaketa eragingo ditu. Udaltzainek jarriko dituzten isunak Eusko Jaurlaritzako Zirkulazio Sailak bideratuko ditu, eta orain jartzen dituztenak baino garestiagoak izango dira.

Horrez gain, honako kaleetan ezingo dituzte autoak gelditu: Aranburuzabala, Arana eta Gaztainadi kaleetan, Aingeru ibilbidean eta Intxaurtxueta kaleko lehenengo sei zenbakietan. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Euskal Bizikletak irailera arte itxaron egin beharko du

Datorren urtean Euskal Bizikleta Gatzagara ekartzeko lanean ibili dira Dorletako Ama elkarteak. Orain jakin dute, baina, antolatzaileek oraindik ez dutela ETBekin hitzarmenik lortu. Eta erabaki dute irailera arte itxitea lasterketa herrira ekarri edo ez erabakitzeko.

SAN MARTINAK, DOMEKAN

Domekan ospatuko dute Goierri auzoan San Martin eguna. Meza esango dute ermitan, eta luntxa egin eta gero, domekan jokatu dute. /X.U.

Ekainaren hasieran onartu-tako lege bati esker, SOVI eta pentsioa, biak kobratu ahal ditu orain alargun batek. Urte askotako borroka izan da lorpen hori. Aurre-erretiratuen, pentsiodunen eta alargunen egoera jakin nahi izan dugu.

OIHANA ELORTZA

Zerk bultzatuta jaio zen APPALDE, Debagoieneko aurre-erretiratu eta pentsiodunen elkarteak?

Duela sei urte sortu genuen, aurre-erretiratuen eta pentsiodunen eskubideen gaineko informazioa izateko eta geure eskubideak aldarrikatzeko, besteak beste. Gure egoeran egoteagatik ditugun eskubideak errespetatu dituzela eskatu nahi dugu eta dagokiguna eskatzen dugu.

Zenbat kide zaudete elkartearen?

Debagoien osoko 160 bat lagun, gutxi gorabehera. Gehienak oñatiarrak gara, baina badaude Arrasate eta Bergarako lagunak ere. Euskadiko federazioiko kide gara eta Estatu mailako konfederazio bat ere egin dugu. Euskadiko federazioan 4.000 lagun inguru gaude.

Alargunen interesen alde ere egiten duzue, ezta?

Bai, berdin-berdin.

Alargunek SOVI deiturikoa kobratu ahal izango dute aurrerantzean. Zer da SOVI, zehazki?

Gazteleraz esanda, *Seguro Obligatorio de Vejez e Invalidez*. 1.800 egun lan egin duenak 1967. urtea baino lehen, eskubidea du SOVI kobratzeko 60 urte egiten dituenen. 1980ko hamarkada arte osagarriak ziren eskubide hori eta alargunaren pentsioa. Hamarkada hartan, ordea, kendu egin zuten bateragarritasun hori eta soilik pentsioarekin gelditzen ziren alargunak.

Orain, SOVI eta pentsioa, biak kobratu ditzake alargun batek?

Bai. Ekainaren 6an onartu zuten legea. Gu urte askoan egon gara lege horren zain; firmak batzen egon garenean ere eskatzen genuen SOVI alargunen pentsioekin bateratzea. Aurretik ere askotan eskatu dugu, Madrilen zein Gasteizen eta ministroari zein sailburuari. Orain arte ez digute kasurik egin, baina lege horri esker biak kobratuko dituzte alargunek.

Zenbat euro dira SOVI?

Orain 313,30 euro. Askorendako laguntza handia izango da.

Pentsio baxuak dituzte alargunek?

Askok oso baxuak dituzte, bai. Badaude 28 urte kotizatu dutenak eta alargun pentsioarekin bakarrik gelditu direnak, SOVIrik gabe.

Zenbat eurotan dago orain gutxieneko pentsioa?

Legeak esaten du 65 urte dituen alargun batek 438,71 euroko gutxieneko pentsioa izan behar duela. Ez da diru asko, baina batzuk ez dira iristen. Kasu horietan osagarri batzuk jartzen dizkie Estatuak, gutxieneko pentsiora heltzeko.

Baditu mugak lege berri horrek?

Bai, eta hori da gure kezka. 877,42 eurotan jarri dute muga, justu gutxieneko pentsioaren bikoitza. Horrek esan nahi du 877,42 euro baino gehiagoko pentsioa duen alargunak ez duela SOVIrik kobratuko.

Nola hartu duzue klausula hori?

Hilaren 27an dugu bilera Gizarte Segurantzako idazkari nagusiarekin, eta muga hor jartzea ez zaigula ondo iruditzen esango diogu. Alargun batek bere ezkontidea-



OIHANA ELORTZA

Felipe Antonio Igartua

APPALDE-KO PRESIDENTEA

“Pentsioen gaiak jorratzen dituztenean han egon nahi dugu, geure eskubideak defendatzeko”

SOVI ETA ALARGUNEN PENTSIOA BATERAGARRIAK

“1.800 egun lan egin duenak 1967. urtea baino lehen, eskubidea du SOVI kobratzeko 60 urte egiten dituenen; Kutxan egin behar du eskaera”

AURRE-JUBILATUEN EGOERA

“Oraingo legeak %6ko zigorra jartzen dio aurre-erretiratuari, baina zergatik jasan behar dugu penalizazio hori bizi osorako ez badugu erretiroa hartu gure borondatez?”

ren %52 kobratzen du. Gizon baten pentsio maximoaren %52 dira 1.100 euro inguru, eta guk uste dugu kopuru horretan jarri beharko luketela muga.

Hala ere, lege hori onartu izana oso albiste ona da, eta oso pozik gaude.

Non egin behar du eskaera alargun batek SOVI jasotzeko?

Kutxan egin behar du. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia bat besterik ez dute eraman behar eta Kutxan eskaera orria bete behar dute. Beti hurrengo hile-

an kobratzen da pentsioa, eta irailean kobratu nahi duenak orain egin behar du eskaera.

Eta zein da aurre-erretiratuen eta pentsiodunen egoera?

Aurre-erretiratuek bi bide zabaldu ditugu dagokiguna eskatzeko. Batetik, Auzitegi Konstituzionalean demanda dugu jarrita. Estatu mailako 10.000 lagun inguruk jarri dugu demanda hori. Bestetik, gure elkartearen aurre-erretiratu asko daude 40-45 urte inguru kotizatuta dituztenak. Horiek

kobratzen duten portzentajea 18 urte kotizatuta dituenaren parekoa da: %60.

Zuek zer eskatzen duzue?

%100 kobratzea. Aurre-erretiratutako askok ez dugu erretiroa gure borondatez hartu; erregulazio espedienteak, bidegabeko espedienteak edo enpresen itxierak gertatu direlako hartu dugu erretiroa lehenago. Orduan, zertarako jasan behar ditugu zigor horiek bizi guztian? Gauza bat da 65 urte egin artean izatea pentsio murrizketak, baina zergatik bizi osorako? Hori ez dugu onartzen.

Zenbatekoak dira penalizazioak?

Aldatzen joan dira. Oraingo legeak dio %6 dela. Adibidez: 60 urterekin erretiroa hartzen duenak 65 urtera bost urte ditu; bost bider sei, 30. Lagun horrek %30eko zigorra izango du bizi osorako; %70 kobratuko du. Kontua da lehengo legeen arabera lagun asko %8ko eta %7ko penalizazioekin gelditu direla, eta guk eskatzen dugu horiei ere oraingo legea aplikatzea, gutxienez.

Ze esperantza duzue?

Lanean jarraitzen dugu. Gure egoera azaltzen jarraitzen dugu eta batengana eta bestearengana joaten gara geure eskubideak aldarrikatzeko. Badugu esperantza gure egoera hobetzeko aurrerantzean. Sinadura asko batu genituen eta Auzitegi Konstituzionaleko kontu horrek ere oihartzuna izango duela uste dut.

Bestetik, talde mistoak eta EAJ alderdiak ez-legezko proposamenak aurkeztu dituzte eta CIUK ere badu aurkezteko asmoa. SOVI pentsioarekin bateragarria izateko legea ere CIUK aurkeztutako ez-legezko proposamen baten ostean etorri da.

2004. urtean, Eusko Jaurlaritzak pertsona baten pobretasun muga 517 eurotan ezarri zuen. Horrek esan nahi du hilean kopuru horretara heldzen ez direnak pobrezian bizi direla kontsideratzen dela. Asko bizi dira pobrezian?

Bai, jende asko dago kopuru horretara ez dena iristen.

Jarraitzen du jendeak zuen lana?

Batzuek esan digute ez dugula ezer lortuko, baina gero ez dira konturatzen beste askok baino probetxu handiagoa ateratzen dutela eurek, lan eta aldarrikapen hauei esker. Hala ere, niri lastima ematen dit ikusteak jende askok ez duela interesik jartzen.

Sinadurak biltzen ibili garenean ikusi dugu gazte askok ere sinatu dutela eta sentsibilizazioa badagoela. Baina erretiratuen elkarte hainbat kidek ere esan digute euren bileretan txangoei eta bidaiei buruz hitz egiten dutela eta ez aurre-erretiratu, alargun edo erretiratuen egoera legalaz. Egoera horretan daudenek ikusi behar dute guri dagokiguna guk geuk eskatu behar dugula. Sindikatuendako subjektu pasiboak gara. Gu ez gaitu inork ordezkatzeko.

Ze harreman izan dituzue alderdi politikoekin?

Harreman asko ditugu. Batzuetan, gainera, eurek deitzen digute guri. Gu ere askotan joaten gara eurengana eta han eta hemen ibiltzen gara geure aldarrikapenak egiten. Azkenean, mezu horiek heldu egiten dira nonbaitera.

Zer eskatzen diezue?

Guk nahi dugu pentsioen gaiak jorratu behar dituzten bakoitzean gure ordezkariak han izatea. Bai Gasteizen, bai Andaluzian edo bai Katalunian. Tokian tokiko ordezkariak bilera horietan egotea.

Alderdi Sozialistarekin gauzak hobetu egingo dira?

Aldaketak egongo direla uste dut. Lehengoek urte asko egin dituzte agintean, baina ez dute egoera konpondu, eta ea orain sozialistek zerbait egiten duten. Ez dezatela, behintzat, Gizarte Segurantzako dirua beste nonbaitera bideratu eta beste zerbaitetan gastatu.

Gutunak

Joan Perez de Lazarraga, familiaren kronista

MJoan Perez de Lazarragaren izena eta omena dugu guztien aho-etzpainetan iazko urtarriletik, hau da, eskuizkribua eriden zenetik. Baina idazle gisa dituen merezimenduez gain, ez da ahan-tzi behar bere familiaren kronika bat idatzi zuela. Hobeki esan, bere aitaginarrebak utzi zuen kronika berregin eta eguneratu zuen. Joan Perez de Lazarragaren letra ageri da garbi eskuizkribuan, azken urteak arte.

Kronika honek, arrazoi osoz, ikertzaile asko erakarri ditu, hala nola Juan Carlos Guerra, Koldo Mitxelena, Iñaki Zumalde edo Micaela Portilla. Kopia batzuk ezagutzen dira, baina jatorrizko alea Gasteizen da, Elizbarrutiko Artxi-boan. Velascotarren familiatik joan zen hara; gogoratu behar da Velasco bat idazlearen alaba batekin ezkondu zela. Eskuizkribu honen bigarren partean bada kopia bat, XIX. mendekoa, zalantzarik gabe irakurlearen mesedetan egina.

Lau ikertzaile horien izenei beste bat erantsi behar diegu: Maria Comas Ros katalanarena. Ros andrea Oñatira etorri zen, Geografia eta Historia katedradun, eta Oñatiz maitemindu zen, berak aitortzen duenez. Maitemindu ez ezik, erabaki ere zuen Oñatiren historia ikertzeara. Eta horra zenbait urteren buruan nola egin zuen doktorego tesia. Horren mami nagusia 1936an liburutatu zen, titulu honekin: *Juan López de Lazarraga, secretario de los Reyes Católicos, y el monasterio de Bidaurreta*.

Egia da Comas andreak egin zituela huts ugari kronika honen edizioan, gainerako dokumentuetan bezala. Adibidez, kronikaren lehen hitzetan kontatzen zaigu nola Lazarraga batek aurkitu zuen urrezko altxor bat *Urrupologaray* izeneko tokian; *Urruxolagaray* irakurri behar da, hots, *Urruxolagarai*. Ozeta herriaren izena ere gaizki dator: *Oreta*. Baina, maiz gertatzen denez, hau dugu edizio bakarra, bere akatsak gorabehera, eta zordun gara Maria Comasekiko. Eta orain galdera bat: gerra ondoren nora joan zen andre hura? Non bizi izan zen? Noiz hil zen? Nik bederen ez dakit deus ere.

Genealogia eta kronika mota haue-tan ikusten ohi dena dakusagu hemen ere: familiaren loria eta antzinatasuna gorapatzen da. Eta hain zaharra da familia! Izkribu honen arabera, Eneko Aristak berak sortu zuen Larreko dorrea, IX. mendean. (*Eneko Arista* diogu, eta ez *Eneko (H)Aritza*, eta ongi legoke behin betiko okerra zuzentzea, XVII. mendetik datorriguna. Carlo Barojak idatzi zuen bezala, bere *Etnografía histórica de Navarra* liburuan, I, 120-121. orrialdeetan, *arista* edo *aresta* erromantzea da, eta “no aludiría a la fortaleza corporal del rey, comparable a la del roble pirenaico, sino a su ardor en las luchas, inflamable como la arista seca, es decir, la especie de espina o espiga de trigo, *aresta* o *arista* también”).

Elezaharrak elezahar, ordea, funtsean bada egiaren zati bat, Micaela Portillak argi ikusi zuen bezala. Izan ere, nafar erregeak ganboatarren alde zeuden Arabako muga-herri hauetan. Ekialdeko Lautadaz ari gara, jakina, eta hona

Lazarragatarrak 1439an iritsi ziren, hau ez da gezurra. Bidenabar, esan dezagun *Arabamendi* izena darabilela Joan Perez de Lazarragak kronika honetan, guk Urkilla eta Elgea deitzen ditugunak deitzeko, eta ez gara batere urruti Oñati aldean egun arrunta den izenetik: *Arabako mendiak*.

Lazarragatarren balentriak kontatzen zaizkigu hemen zabal-zabal. Zinez familia handia, hainbat lekutan hedatua eta adarkatua, Italian eta Ameriketaren ere. Horien guztien indarra eta itzala da hemen mintzagai. Eskuizkribuaren tituluaren bertan dago oso garbi helburua: *Relación histórica de las casas y apellidos de los Lazárraga (...) de los puestos y dignidades de unos y otros*. Denetariokoa dira, jakina, *puestos y dignidades* horiek. Besteak beste, esan beharrik ez da, *luma-jendea* zen (deitu izan den bezala). Austriarren errege-erreginen administrazioaren makineria pentsaezina da euskaldunen sekretario eta bulego-langile hauek gabe. Idaztera emanak baitziren, eta batzuk, gainera, literatura lantzerik, Joan Perez de Lazarraga bezala. Kronikan interesgarria da aipamentxo bat, ertz batean: *Orlando Furioso*, Ludovico Ariostoren poemaren titulua ageri da.

Senide guztiak ez ziren, ordea, hain finak eta gozoak. Harietako batez ari denean, hau irakurtzen dugu: “Sucedióle matar a un clérigo”, horrela, ogibitarte bat eman bazion bezala edo. Hil bai, baina ez zuen horrek inolako zigorrik izan, zeren Larrean aurkitu baitzuen babes, babes osoa, dorreak eta dorre inguruak pribilegio hori zuelako, hots, legeak eta epaileak ezin sar zitezkeen han.

Beste pertsonaia bat interesgarria da. Gure idazlearen izen-deitura berberak zituen: Joan Perez de Lazarraga. Larrintzarren bizi zen, hango jauna. Han erre-zibitzen zituen menpekoak, eta han aritzen zen epaile, “jauregiaren ondoan dauden itxaurren azpian”. Gizon hau erotu zen, eta dirudienez odol-pikoen-gatik. Eta hain erotu zen, non Gasteiza joaten baitzen, zaldun gisa armatua, eta kalez kale ibiltzen zen garraxika, “Santiago! Santiago!” eta “Calleja! Calleja!”. Larrintzarren, bere baratzean, arropa arinagoan seguru aski, urre eta zilar txanpon batzuk erein zituen, hau esanez: “Pues nació el mijo que era grano tan nuevo, ¿por qué no había de nacer el doblón?”. (Jakina, *mijo* hori “artoa” da, garai hartan oraindik Ameriketatik etorri berria; leku askotan landare etorri berri horrek kendu zion zaharrari bere izena, eta hau geroztik *artotxikia* deitu izan zen.)

Asko dira hemen amorio eta maitasun istorioak, bai eta ezkontzaz kanpoko umeak ere (eta ez dira gutxi apaizen seme-alabak; behin artzipreste batena ere aipatzen da). Gorrotoa eta ezinikusia ere ez da falta: Oñatiko harakin batez mintzo denean, hau da iruzkina: “Que nunca medre”.

Kronika honek hizkuntza aldetikako interes handia eskaintzen du, eta euskalari zenbait jardun dira hori ikertzen. Mitxelena, *Textos arcaicos vascos* liburuan, xehekiro aztertu zuen lelo bat, guztiz garbi ez dagoena (guk gaurko grafian emango dugu): “Gaitza zenduan leinztarrok, Urruxolako lekaioa, Sendo zenduan odolori bihurtu jatzu gatzaioa”.

Mitxelena dioen bezala, *odol sendoa* “harrokeria” da; *gatzaio* agian “gatza-

tua” edo “mamia”, eta lekaio “garraxia”. Baina harrigarri bada ere, kopia gehienetan bezalaxe, eskuizkribu honetan *lenizanos* ageri da, ez *leinztarrok*. Zer esanik ez, *odolori* horretan, nik uste, artikulu zaharra dugu; gaur odola esango genuke. Lelo horren atzean oñatiarren eta leinztarren gatazka odoltsu bat da, garai hartan sarri gertatzen zirenetariko bat, eta leloa gelditu zen jendearen ezpainetan, gure idazleak dioen bezala.

Testuak beste gauza asko dakartza, hizkuntzarentzako interesgarriak. Adibidez, gizon baten goitzena *Goldadeyarro* da, eta ondoan azalpena dator: “por respecto de su blanda y amorosa condición”. Esango nuke izen horretan *Gold(e)a darraio* behar dugula ikusi.

Euskaltzaindiaren ospakizun honek bere fruitu iraunkorrak emango ahal ditu! Bat oso beharrezkoa da: kronika honen edizio oharreztatua. Horretarako bada gure artean jende aditua. Bada, kit erraza dela besteri lana eskatzea, baina egingo duenak izango du gure laguntza osoa. Atsegin handiz emango diegu.

HENRIKE KNÖRR

Ozeta

San Martin plaza

Aurreko GOIENKARIA baten iraku-Arri nuen Oñatiko irakurle baten kexa bat umei Oñatiko plaza nagusian baloiarekin jolasten uzten ez dielako Oñatiko Udalak. Dirudienez, lorontzi batzuk jarri omen dituzte eta hori da debekuaren arrazoietariko bat. Irakurle harekin bat egiten dut umeak herrietako bizitza direla esaten duenean eta herrietako plazei bizitasuna eta alaitasuna umeek ematen dietela esaten duenean.

Oñatin, Arrasaten..., jeneralean ume asko ikusi izan ditut bertan eta egia esan kristoren inbidia eman dit. Bergaran, berriz, gutxitan izaten dugu hori ikusteko aukerarik (jaietan?). Enparantzak leku publiko pribilegiatuak izanik (dauden tokian daudelako), uste dut aisialdirako beharko luketela izan eta ez jaietan bakarrik erabiltzeko edo Bergararen kasuan gertatzen den bezalaxe aparkaleku moduan erabiltzeko.

Onartzen dut aparkatzeko oso gaizki daukagula herria, baina egoista samarrak ere bagara eta etxetik, banketxetik... gertuen aparkatu nahi izaten dugu. Horrez gain, ez dakit zergatik Udalak bere langileendako gorde behar dituen aparkalekuak hain leku pribilegiatuak. Udala enpresa pribatua balitz eta plaza berea balitz ulertuko nuke, baina ez da hori kasua, ala? Horretarako nahi dugu gure herriko plaza, aparkaleku izateko?

Eta gero ekintzak antolatuko ditugu jendea Gasteizera joan ez dadin, turismoa erakartzeko ekimenak bultzatuko dira, auditorioa egingo da..., eta gauza sinpleenen hausnarketa ez dakit egin duen Udalak (oraingoak eta aurrekoak, gobernua eta oposizioak...). Hori bai, aparkalekuak izan behar bada, ba aurre-ra, baina guztiondako eta ez bakarrik Udaleko langileendako.

JON UNAMUNO

Bergara

Iturri eta komun liluragarriak

Ama naiz, eta beste hainbat eta hainbat bezala, azken bolada honetan giro ederra dugunez, parkera joaten naiz semeekin.

Sekulako parke publikoa dugu Bergaran: Usondo. Benetan ederra, zuhaitzez eta bankuz beteta, eta ezin garbigoa. Aipatutakoa gutxi balitz, parke erdi-erdian topo egiten dugu monumentu erraldoi batekin, guztien begiradak harrapatzen dituen, batez ere umeena: iturria.

Parkera heldu bezain pronto hasten dira eginkizunak. Lehenengo banku bat topatu edo harrapatu, merienda atera eta umei janarazi, eta berehala egarria sentitzen dutenez, iturrira joan behar. Orduantxe hasten dira benetako komeriak. Baina, nola hurbildu? Zer zapata-mota jantzi? Katiuskak? Izan ere, izugarrizko putzua dago, lokatzez beteta: umeen paradisua eta gurasoen infernua.

Behin egarriarena nolabait konponduta, bigarren fasea, amen zoramena: “Ama, txizta!; ama, kaka!”. Baina, zer egin?, nora eroan?, erreka ondora ala komunera? Nik ez dakit zuek, baina nik erreka nahiago dut, ez baitut komune-ko *bizilagunak* bisitatu nahi, eta are gutxiago etxera baten bat eroan. Telebistako Don limpio etorriko balitz, zur eta lur, aho bete hortz, geratuko litzateke hango garbitasuna ikusita.

CARMEN ZAFRA

Bergara

“Con la venia”

Nire aurreko idatzian ez dago argu-mentu gabeko komentariarik, ez baitiot epaile espainiarri argumetuekin erantzuten, idatzi berebetean aipatzen ditudan bi arrazoiengatik. Testua eta Nekane kalifikatzen ditut datu adjektiboen bitartez, besterik ez. Non daude Nekanaren argumentuak?

Zurea bai dela argumentu eskasa. Euskal Herriaren eta euskal herritarren eskubideen defentsa egiten omen duelako, edozer idazteko zilegitasuna eman al dio toga beltz horrek? EHAK alderdiak etsai politikoaren deuseztapen fisikoa bultzatu eta justifikatzen duela idatz dezake? (portzierto, Aitor, hitzez hitz Matildek eta Mayor Orejak idatziko luketen gezur handi berbera).

Pertsona honek badauka Nekanaren berri. Badakit, adibidez, Komando Autonomoetako kideen abokatua izan zela, eta? Horrek zer edo zer aldatzen al du?

Nire ustez, Nekaneri gertatu zaiona ez da kokoteraino dagoela, baizik eta EAEko hauteskundearen emaitzek egundoko zaplastekoa eman diotela. Ostia jaso ondorengo amorrak bultzatuta idatzi zuen idatzitakoa.

Alderdi edo kolektibo bati kritika egin nahi badiot, ildo politikoari, estrategiari, taktikari edo publikoari esan eta egindakoari erreparatuko nioke. Nik ere egin dezaket, adibidez, Aralarri buruzko idatzia, Aintzane Ezenaroren gertuko pertsona batek (orain dela urte

Hemeroteka

gutxi, ez hamabost) esan zizkidan perlekin, baina hori ez da gure estiloa.

Lapurrak eta traidoreak. Nola definituko zenituzke beraiei ez dagozkien ia 400 Udal eserleku okupatu dituzten alderdiak? Nik argi daukat, lapurrak. Egia da Aralarrek ez dituela okupatu, baina ez dio dagokionari ere okupatzen utzi. Dimiti dezatela guztiek behingoz! Nola definituko zenuke, Aralar alderdia, Patxi Zabaletak “gure helburua Batasuna botoz hustuaraztea da” publikoki aldarrikatu ondoren? Zer eta Batasuna debekaturik dagoenean... Putreak! Eskerrak Ezker Abertzaleak ustez gertuen dagoen alderdia eta jendea dela.

“...ez dakigula egun saminik etorri gure etorkizunaren jabe izateko bide horretan”. Zorionekoak zuek. Zoritxarrez, Telesforo Monzonek esan zuen bezala, nazio askeak, negar malko eta odolez erditzen dira. Animu, Irantzu!

JULEN MENDIZABAL
Arrasate

Etxebizitza eta lurzoruaren gaineko gezurrak

Badaude hainbat topiko etxebizitzaren gaiaren gainean gure gizarte honetan ezarri direnak eta errealitatearekin zerikusi gutxi daukatenak. Althusser filosofo frantsesak adierazi zuen: “Denboran zehar gezur baten gainean isiltzen bagara, akatsak jarraitu egiten du; isiltzen gara akatsak jarrai dezan, norbaiti onura politikoak ekartzen dizkiolako”.

Lurzorua garestia da eskasa delako. Gaur egun etxebizitzaren prezioaren %50 lurzoruari dagokio, askotan entzun dugu garestitze hau lurzoruaren gabeziak ekartzen duela. Baina hara non lurzoru ugari dauden lekuetan, jabeek atxiki egin dute eta pixkanaka-pixkanaka merkatura atera dute neurritz kanpo balioztatzeko. Gasteizen adibidez.

Lurzorua liberalizatzek merkatu egingo du. Honen gainean adibide argi bat daukagu eskura. 1998an Alderdi Popularrak, legez, lurzoru guztia erakitzeke egoki bihurtu zuen. Zer gertatu da handik aurrera? Lurzoruaren prezioa %200 igo dela. Lurjabeek lehen aipatutako neurriak hartu zituztelako.

Etxebizitza garestia da jendeak ordaindu egin dezakeelako. Solbes ogasun ministro “ezkertiarak” pasa den astean horrela adierazi zuen. Kontuan hartu beharko genuke jendeak —gazteok bereziki— ez duela gaur egun beste aukerarik. Zeren eta kartoiaren artean zubi azpian bizitzea ez da etorkizun atsegin-garria.

Babes ofizialeko etxebizitzak etxebizitza librea garestitzen du. Gertatzen da promotore pribatuek etekin bera atera nahi dutela lurzoru guztian. Babes-

tutako etxebizitzekin irabazi txikiagoa dutenez, libreki ustezko galera hori egotzen diete. Hala da, ustezko galera; zeren urdaiazpikoaren hezurra (Babes Ofizialeko Etxebizitza) giharraren (etxebizitza librea) prezioan saldu nahi dute, eta ezinean, “galera virtual” hauek giharri egotzen dizkiote.

Alderdi nagusiek eta eraikuntzaren sektore gehienek zergatik ereiten dituzte honelako gezurrak? Erantzuna Martín Seco-ren liburuaren izenburuak ematen digu: “La economía, estúpidos, la economía”.

ANDER RDZ. LEJARZA (EB-BERDEAK)
Arrasate

Boluko guraso eta gazteei

Joan zen egunean, San Juan bezperan, Bergarako Bolu auzoko gazteek trenbidearen zubi ondoan prestatutako San Juan sua piztu zuten.

Gaueko 11:20etan su handia zegoen oraindik eta, hala ere, hor inguruan inor ez zegoen sua zaintzeko edo itzaltzeko.

Nire kezka: jarrera egokia dela pentsatzen duzue?

ARANTZA PALACIO
Bergara

Mankomunitateari

Bergarako San Lorentzo auzoaren inguruan bizi naiz eta beira jasotzeko edukiontzia husteru goizean goiz etortzen dira gure auzora behin baino gehiagotan. Aurrekoan 07:30ak aldera esnatu ninduen zerbitzu horretaz arduratzen den kamioiak. Sekulako zarata. Kontuan izanda ordu horretan gehienok lotan gaudela, ezin daiteke beste ordutegi batean zerbitzu hori egin? Ezin dira beira jasotzeko edukiontzia egunez hustu?

Tabernei eta bestelakoei zarataren kontrako neurriak hartzea eskatzen zaie. Mankomunitateak ere zaindu beharko luke bere zerbitzuen ordutegia. Eta zarata maila ere bai. Badakit ez dela lan erraza, baina ahal balitz, zarata kontrolatzeko neurriak har ditzake eskatu nahi nieke Mankomunitateari.

Edozein modutan, birziklatzerako ematen dituen erraztasunengatik zoriondu nahi du Debagoieneko Mankomunitatea. Nire lagun eta ezagunen artean badira zaborrak sailkatzeko ohiturarik ez dutenak. Ea poliki-poliki horretara ohitzen garen.

J. LARRAÑAGA
Bergara

Aralar: zein gogorra den txikia izatea!

Aralar alderdikoei gogorra egin zaie etxe Asartzea Eusko Legebiltzarrean: EAK ukatu egin zien talde parlamentarioa izatea, hirukoak ez zien traturik onartu lehendakaria onartzeko saioan, eta, azkenik, EHAK-k denon begi bistan utzi du Aralarrek, hasiera honetan behintzat, uste baino eragin apalagoa izango duela Eusko Legebiltzarrean, azken batean EHAKren botoek erabaki baitzuten lehendakari-gaiaren auzia, eta ez Aralarrenak.

Asko hitz egin da egun hauetan Aralarren kontu honetaz, nola galdu duen eragina parlamentuan. Izan da kargu hartu dionik ere, Sustrai Colinak adibidez, joan den larunbateko zutabearen, Berria-n:

“Batzuk alfer-alferririk daudela konturatu dira. Minduta sumatu ditut. Hitz egiteko ala Kontxan bainatzeko gogorik gabe. Karguak kargu, zin egitea ez baita beti nahikoa. Fin egin behar da”.

Nik, ordea, uste dut Aralarrek izan duela eraginik Eusko Legebiltzarrean, eta oraindik ere izan dezakeela, baina jakinda alderdi handiak saiaturiko direla hori ukatzen eta bera indarge uzten. Azken batean, Batasunak Anoetaraino egin badu bidaia, izan da Aralarrek horretara behartu duelako, bazekien-eta mugimendu hori egin ezean, betiko ezker abertzalearen boto asko Aralarreara joan zitezkeela. Eta Eusko Legebiltzarrean ere hasi da beste modu batean jokatzeko, pragmatikoagoan, atzean Aralar duelako.

Halaber, Joseba Egibarrek euskara hutsean egin zuen bere hitzaldia Gasteizen, besteak beste Aintzane Ezenarroko gauza bera egin zuelako, eta EAJk ez zion utzi nahi Aralarri horren eskusiba. Eta gero, halaxe dira gauzak, Radio Euskadik behin eta berrero esan zuen Joseba Egibar izan zela bakarra bere hitzaldia euskara hutsean eginen. Horrela gertatu zen, eta Joseba Egibarrek horrela gerta zedin egin zuen.

Baina Aralarrek jakin behar du hori, eta, ondorioz, horren arabera jokatu. Izan ere, hitz polit asko jaso ditu zenetik (baita bestelakoak ere, kalean batez ere), baina legebiltzarrean inork ez dio ezer oparitutako.

EAK garbi utzi du ez duela lehiakide gehiagorik nahi, eta ukatu egin dio talde parlamentarioa izatea.

Ezker Batuarentzat ere Aralar bide-lagun deserosoa izan daiteke, zenbait aldarrikapenetan oso antzera jokatzeko dute-eta. Eta hori alderdi txiki batentzat arriskutsua izan daiteke.

EAJk errespetatuko du Aralar, haren botoa nahi duen neurrian. Osterantzean, utzi egingo die besteei “lan zikina” egiten, talde parlamentarioen auzian gertatu zen bezala.

Batasuna, ordea, izango du aurkari-rik gogorrena, biak, Aralar eta Batasuna, pastel bera ari baitira jokatzeko. Oraingoan, EHAK-k joko kanpo utzi du Aralar, eta denen begi bistan utzi, “ez duela

eraginik”, zenbaitek esan duten moduan. Aurrerantzean ere, pauso guztietan aintzat hartuko du zelan indargabetu Aralar, eta hori ere logikoa da, alderdiek gorde behar izaten dute-eta beren esparrua.

Horregatik, papeleta zaila du Aralarrek, asmatu behar baitu oreka bilatzen bere printzipioen eta pragmatismoaren artean. Izan ere, askotan agertzen bada jokoz kanpo, boto-emalea hasiko da pentsatzen zertarako balio duen Aralarren botoak. (...)

JOXE ARANZABAL
www.goiena.net/blogak/faroa. 2005-06-27

'S. laratza' eta post-modernitatea

Ikusle-idazle zenbaiten jomugan izan da *ez gutxitan Sorginen Laratza* saioa sei urte hauetan zehar. Euskal estereotipoak indartzen zituelakoan, nahiz itxuraz kontrakoa bilatu. Egungo euskal *izaera* kolektiboaz oso irudi afrusa hortera eskaini izan duelako saioak.

Herenegungo despedida jaiaren gertatu bezala: euskal gautxori beti-gazteon eremu naturala ematen zuen platoak. Tolosa eta Lekunberri arteko errepide zaharrean, hor nonbait, kokaturiko diskoteka intenporal batean jarraitu izan bagenu bezala, 70eko hamarkadaz geroztik gutariko askorengatik oraindik bizirik egon litekeen ikonografia *country* hura berreskuratuz. *Kubata on-the-rocks* bati ongi helduta, nor eta harri-jasotzaile-ohi bat gure aldamenen ageri dela, barra gainean erdi etzanda eta infiniturantz begiratuz oso serio (errespeto guztiz esanda harri-jasotzaile zein kubata-zaleekiko).

Baina bere burua edozelango euskal tipismoz libro ikusten duen euskaldunak ez diezaiola kamerari bost segundoz jarraian begiratu badaezpada. Euskal estereotipo jakin batzuei ihes egin nahi bai, baina bestelako pintoreskismo batzuetan erortzeko, ia-ia jokoaren arauetan barrena dagoena momentuz, euskal gizarte *preposmoderno honetan*.

Horregatik aski maitagarriak gara oraingoz batzuok eta besteok, nago: post-modernitatea ez delako oraindik nagusitu gutartean, eta estetika kontrajarriak *casus belli* erabiltzen ditugulako banderizoen modura. XXI. mendeko alkandora hawaiarra batzuok eta besteok jantziko ez bagenu bezala gaur bai eta bihar ere.

SL kosmos txikian gutariko gehienok eroriz gero, nago, palmondoak dira kamerak lehen harrapatzen dizkigun alkandorako irudiak. EH kosmos handiagoan ere, modernitateak agintzen dituen bestelako tipismoei ihes egin dieten euskal prototipoak salbuespena baitira momentuz (post-modernoak!). Poetak esan zuenaren alderantziz, gure baitakoak baikara oraingoz.

FERMIN ETXEGOIEN
‘Berria’. 2005-06-29

Torreauzoko krosean, Abdeslan Serrokheren marka gainditu guran

Domeka goizean egingo dute lasterketa, 11:00etan

XABIER URTZELAI

Lasterketa baino apur bat lehenago egongo dira antolatzailerak parte-hartzaileen izenak hartzen. Santi Mendiolak esan digu gehienak herriko edo inguruko lasterkariak izango direla, baina beti azaltzen dela artistaren bat. Ondo daki hori Kamel Zianik, edo Abdeslan Serrokek.

Orain dela bost urte izan zen Kamel Ziani Oñatin, eta orain dela hiru Abdeslan Serrokek eman zuen sorpresa, lasterketako marka onena eginda (22:07). Azken bi urteotan, baina, Kantabriako lasterkari batek hartu du erreleboa: Manu Gomezek, hain zuzen. Joan den urtean, lasterketako errekorra gaintzera etorri zen Manu Gomez, baina, proba irabaztearekin konformatuta itzuli behar izan zen etxera. Sariari dagokionez, senior, gazte maila eta beteranotan garaikurrerekin batera dirua ere emango dute; irabazleak 200 euro eramango ditu poltsikora, eta beste 200 euro gizezkoen eta ema-



GOIENKARIA

7,6 kilometroko proban, gaintzeteke dago Abdeslan Serrokheren marka.

kumezkoen marka onena gaintzen badute (Nieves Zarza izan da emakume azkarrena, 26:44). Horrekin batera, Oñatiko batek egindako marka onena Ritxar Fernandezek esku dago (22:41), eta nesketan Estela Biainen esku

(31:02); hori gaintzen dutenek ere saria izango dute.

Nagusien lasterketa baino lehenago, 10:30ean gaztetxoek lasterketa izango da. Bi kilometro egingo dituzte kadete, infantil eta alebin mailakoek.

Kirolabur

SASKIBALOA/HONDARRIBIA-IRUNEN FITXAKETA

Itziar Mallabiabarrena arrasatearra fitxatu berri du Hondarribia-Irun taldeak. Itziarrek Bartzelonan egin ditu azken urteak, Siglo XXI taldean. 17 urte ditu Itziarrek, 1,88 metro luze da eta pibot postuan jokatzeko du. Eguntan selekzioarekin kontzentratuta dago, uztailaren 19 urte azpiko Munduko Txapelketan izango delako.

PILOTA/ELGETAKO PILOTA FINALA, GAUR

Gaur gauean (10:00etan) jokatuko dituzte Elgetako 4 t'erdiko ETB Kantxako finalak. Kadete mailakoa izango da lehenengo norgehiagoka, eta hortxe izango da ibarreko ordezkari bakarra: Aitor Mendizabal antzuolarra. Aitorrek Idoarte izango du aurrean. Eta 23 urte azpikoetan Berasaluze eta Urrizelki izango dira lehian.

TXIRRINDULARITZA/TOURRAREN GAINEKO BLOGA

Dagoeneko sarean da Tourra landuko duen bloga. Proba horren gainekeo artikuluak aurkituko dituzue egunero-egunero, etapa guztien jarraipena eginda. Horretarako, txirrindularitza ondo ezagutzen dutenak ibiliko dira idazten: kronikak, artikulu bitxiak, hausnarketak, kritikak... Besteak beste, Jone Muxika txirrindulari elgetarra, Joxe Arantxabal eta Juan Martin Elexpuru ziklismo zaleak, eta baliteke profesionalen bat ere animatzea. Horrekin batera, Goienako hainbat kazetarik ere jardungo dute horretan. Hori guztia eta gehiago www.goiena.net/blogak/txirrindularitza helbidean.

Goiena.net Debagoieneko alaria Blog komunitates Lisatu zure bloga

Txirrindularitza Tourra05

2005eko ekainaren 30a, osteguna

HONI BURUZ
 kontaktu-ormia
 Zer da hau?
 Etapak
 Tourreko podiumak
 Edizitu

ARTXIBOA
 Ekaina 2005

EKAINA 2005

Al	Ar	Og	Or	La	3g
	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17
18	19				

Euskaltel-Euskadik talde aproposa aukeratu du?

“Gomendatzen dizut...” SARIA

Konta egiguzu hor zehar ikusi duzuna!

Hondartza, mendi hori...
 Aterpetxe, kanpaleku, ostatu hau...
 Ibilbide, paraje, paisaia hura...
 Herri, hiri, txoko hura...

Saria:

Asteburuko egonaldia Euskadiko landetxe batean (bi pertsonarentzat).

Gomendioak jasotzeko azken eguna: urriaren 26a

Informazio zehatzagoa:

- Arrasateko Gazte Bulegoa: 943 77 00 65
edo gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
- Bergarako Gazte Informazio Gunea: 943 779157
edo gzerbitzua@euskalnet.net

Zure gomendioaren zain gaude!

Argazkian: Bled (Eslovenia)
 Argazkiaren egilea: Aimar Elortza



ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



BERGARAKO
 URDALA





ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta ORBEGOZO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEA 2 URTE
1.460 X 550 X 590 mm

HOZKAILUA 2FA255

255 € 42.428 pta **aspes**



BERMEA 2 URTE
1.850 X 598 X 590 mm

HOZKAILUA COMBI 2FAC495

375 € 62.394 pta **aspes**



BERMEA 2 URTE
500/800 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383

291 € 48.418 pta **aspes**



BERMEA 2 URTE
650/1.000 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163

345 € 57.403 pta **aspes**



BERMEA 2 URTE
1.000 b/min

GARBIGAILUA 4L104

294 € 48.917 pta **edesa**



BERMEA 2 URTE

TELEBISTA SHARP LCD, 26" LC-26GA5E

999 € 166.220 pta



BERMEA 2 URTE

TELEBISTA PHILIPS LCD 26" 26PF-4310

999 € 166.220 pta



BERMEA 2 URTE

LABEA eta BITROZERAMIKA VAP1400

LABEA eta BITROZERAMIKA

298 € 49.583 pta **aspes**



BERMEA 5 URTE

AIRE EGOKITUA HOTZA ETA BEROA

290 € 48.252 pta **FAGOR**



BERMEA 2 URTE

2.050 frigoria/h
20-25 m2 lokaletan erabiltzeko

AIRE GIROTUA ADR 66

275 € 45.756 pta

ETIKETA ENERGETIKOA



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

MATRIKULAZIO EPEA ekainaren 30etik uztailaren 6ra

LANBIDE HEZIKETA heziketa zikloak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako zaintza osagarriak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

**zure etorkizunerako
biderik onena**



Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA
ia@iaretxabaleta.com
www.iaetxabaleta.com



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA





LANBIDE HASTAPENA

2005-2006 IKASTURTEA

Lanbide profilak

Debagoieneko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1go maila

- Modulu-altzarien fabrikazioaren laguntzailea
- Industri mekanikoko laguntzailea
- Sukaldeko laguntzailea

2.maila

- Behe tentsio instalazio elektrikoko laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

MATRIKULAZIOA

Uztailaren 4tik 15era

Non: Debagoieneko Lanbide Hastapeneko egoitza.
Nafarroa Etorbidea 19 Pk: 237 20500 Arrasate
Tel. 943792890 Fax. 943793212
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com




LANBIDE HASTAPENA

Nafarroa etorbidea, 19

20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA)

Tfnod. 943792890 - 943793212

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENENKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta lau sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak

Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago 2005eko irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
 - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
 - Arrasate: Otarola Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
 - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
 - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 26ko Asteleheneko Goienkaria-n.
- Urriaren 3ko Asteleheneko Goienkaria-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak Asteleheneko Goienkaria-ren artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria: Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Zuiko digital 14-45 mm objektiboa. / Objektibo aldagarriak. / Flash eta guzti. / 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.



- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaia agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean sari sorpresa.

Babeslea:



gizarte ekintza

Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI / bidaia
merezi duzu

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

kiñu
argazkilariak

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko uztailaren 1a

Kultura
eta
aisialdia



Uztailaren
1etik 8ra



Jon Escobalesek lagun batekin bidaiatu zuen Indiara. Argazkian, Taj Mahal jauregi aurrean.



JON ESCOBALES

- 22 urte / Aretxabaleta
- Indiara bidaia 2004an; Kubara doa aurten

Gurpildun aulkian geratu eta urte beterra, Indiara bidaia antolatu zuen Jon Escobalesek lagun batekin. Bere burua proban jarri gura zuen, eta gauza batzuetarako laguntza behar izan zuen, baina beste askotan bere kabuz moldatu zen. Oro har, pozik geratu zen bidaia harekin eta, aste honetan bertan, Kubara doa.

Jesarrita, baina ez geldirik

Bi debagoiendarrek erakusten dute gurpildun aulkia ez dela aitzakia gogoko bidaiak egiteari uzteko /15



Aritz Bikuña Maroko aldera jo zuen beste gutxitu batekin eta mediku eta begirale banarekin.



ARITZ BIKUÑA

- 32 urte / Bergara
- Marokora 1996an, Patagoniara 2001ean

Betidanik izan ditu gutxitasun fisikoak, baina ez bidaia-zaletasunarekikoak: bidaiari amorratua da Aritz, eta egin dituen bidaia luzeenak Marokora eta Argentinara, Patagoniara, izan dira. Aurten, oso urrutira joan barik ere, hara-hona ibiliko da: Asturiasera, Tourra ikustera, Saloura...



LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GAURTIK AURRERA
BEHERAPENAK



Ekainaren 30etik uztailaren 6ra

Batxilergoetan matrikulazio epea zabalik

- Natur eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologikoa
- Arte Batxilergoa

 **rrasate**
I N S T I T U T U A

Santa Teresa 25
Tel.: 943 794447 – 943 798300

BIDAIAK/ GUTXITASUN FISIKOAK DITUZTEN BI DEBAGOIENDARREN KRONIKAK

Gurpildun aulkian, mundu zabalera

OZTOPOAK OZTOPO, BIDAIATZEKO ETA OPORRETAN JOATEKO GERO ETA AUKERA GEHIAGO DITUZTE URRITU FISIKOEK

LEIRE KORTABARRIA

Bidaia bat da norbera hobeto ezagutzeko eta mugak gainditzeko aukera. Gutxitasunen bat dutenendako, erronka handiagoa dira urrutira bidaiak, eguneroko bizitzan dituzten zailtasunak ugaltu egiten direlako. Bi debagoiendarrek kontatu digute zelan aurre egin dioten horri.

“Betidanik nuen Indiara joateko gogoia, eta zergatik ezingo nintzen ba joan?”. Horixe dio Jon Escobales 22 urteko aretxabaletarrak, iaz Indiara egin zuen bidaia gogoratu. Urte bat bete berri zen gurpildun aulkian utzi zuen istripu-tik. “Nire burua probatzeko egin nahi nuen bidaia hori”, gaineratzen du Jonek. Lagun batekin joan zen, “beti behar duzulako laguntza”, dio; hala ere, bidaia horrek erakutsi zion gauza askotariko bakarrik baliatzen dela.

Erronka hura gaindituta, beste urrats bat emango du Jonek: datorren egunean, Kubara doa, gurpildun aulkian dagoen beste lagun batekin. Ez da beldur: “Arazorik baldin badugu, bata beste-ari lagunduko diogu. Egokitutako hotel batera goaz, eta abisatu dugu gurpildun aulkian dauden bi lagun doazela. Han, txofer bat hartuko dugu irteerak-eta egiteko”, dio.

Oporretarako planak ditu ere Aritz Bikuña 32 urteko bergararrak. Aurten ez da etxetik urruti ibiliko, baina ez da ere herrian geratuko: hala, lagun taldearekin Sella ibaian behera kanoan jaitziko da eta, hurrengo astebu-



ARITZ BIKUÑA

Aritz Bikuña zenbait lagunekin bidaiatu zuen Marokora. Taldeko lana ezinbestekoa izan zen muga batzuk gainditzeko.

ruan, Tourra ikustera joango dira denok Pirinioetara. Abuztuan, Saloun egingo dute oporraldia. Aritzek gustuko du bidaiatzea, eta gutxitasun fisiko handiak dituen arren –garun-paralisiarekin jaio zen–, ez du uzten horiek bere zailtasunak muga ditzaten.

Hala, aurtengo plana lasaia da beste urte batzuetakoaren aldean: 1996an, Marokora joan zen, eta 2001ean, Patagoniara. Bietara, beste gutxitu batzuekin eta begi-

rak eta mediku batekin joan ziren. Denetarik egin zuten: mandan ibili, mendira igo, basamortuan lo egin...

ZAILTASUNAK

Debagoiendar hauen kasuak eredu izan daitezke beste asko ere bidaiatzera anima daitezten. Hala ere, Aritzek eta Jonek onartzen dute zailtasunak badaudela. Hala, Aritzek hau esaten du: “Oso zaila da halako bidaia bat egin eta

dena ondo irtetea. Askoz lehenago hasi behar da antolatzen: gu bi edo hiru urte lehenago hasi ginen. Etxekook ere ez zidaten joaten utzi nahi, uste zuten ezinezkoa zela nik horrelako bidaia bat egitea, baina medikuak lagundu zidan aita-amak konbentzitzen”. Orain, Aritz bera ibiltzen da kontzientziazio lanak egiten: beste gutxitu batzuk animatzen ditu bidaiatzera, “baina gehienei beldurra ematen die”, esaten du.

Joni gauza bera gertatu zitzaion: aita-amak arduratuta zeuden eta ez zioten Indiara joaten utzi nahi. Bidaiari, deskubritu zuen burujabea zela gauza askotan, baina oztopo asko ere aurkitu zituen: “Bainugelara sartzeko, leku batetik bestera ibiltzeko... mugak daude. Beti behar izango duzu norbaitek laguntzea”.

Gutxituendako oso gomendagarria izaten da, ahal bada, behintzat, euren egokitutako hotelera joatea. Hori, normalean, garestienak izaten dira, luxuzko hotelak izaten direlako. Baina hori ere ez da garantzia: muga arkitektonikoak edozein lekutan ager daitezke. Marokon “ezer ez dago prestatuta” gutxituendako, Aritz Bikuña dioskunez.

“HEMEN ERE GERTATUKO LITZAIDAKE”

Zailtasun gehiago izan dituzte Aritzek eta Jonek kanpora joan direnean herrian baino; baina hemen ere badute zer kritikatu.

Biek autobusa erabiltzeko dituzten mugak aipatzen dituzte: hala, Aritzek Donostian egun pasa egitea du gustuko, eta bidaia oso-ko erronka handienetako bat da autobusera igotzea –hala ere, orain, lagun bat animatzen dihardu autobusez ibiltzen ausartu dadin. Jonek esaten digu Indian autobusera igotzeko komeriak egin behar zituztela, “baina hori Aretxabaletan ere gertatuko litzaidake: autobusak ez daude guretako egokituta”, dio, udal-txera joateko aitaren laguntza ezinbesteko duela azaldu eta gero. Herrian ibiltzea da euren euren sarritan bidaia malkartsuena.

ALAITZ JAUREGI / GUTXITUEN BIDAIA-BEGIRALEA

“Guraso barik bidaiatzea handia da eurenendako”

Gutxitu batzuek euren kabuz bidaiatzen dute, baina beste asko eurenendako antolatutako oporretara joaten dira, taldean. Alaitz Jauregi antzuolarra begirale joan da Nafarroara gutxitu talde batekin. Joan aurretik egin genuen berekin berba.

Zenbagarren aldia duzu begirale moduan?

Hirugarrena: iaz leku berera joan nintzen, Nafarroara, orduan ere Aspaceko begirale moduan, eta Atece elkartearekin –garun-gutxitasun hartua dutenekin– Granadara ere joan nintzen. Aurten, gehienak garun-paralitikoak dira, baina badago gutxitasun



Alaitz Jauregi.

psikikoak dituztenak ere. Akanpada bat da.

Boluntario zoaz. Zelan animatu zinen?

Betidanik gustatu izan zait gutxituekin lana, eta Iruñeko Aspace elkarteak eman zidan aukera. Doazen gehienak gazte-txoak dira, baina adin guztietako jendea dago: 18 urtetik hasi eta 40tik gorakoak.

Zein motatako laguntza behar dute?

Burujabetasun maila desberdinak daude taldean, baina gehienek denetarako laguntza behar dute: komunera joateko, jateko, jantzeko... Batzuek bi laguntzaila behar dituzte. Horrez gain, zenbaitek beste osasun arazo batzuk

ere badituzte: epilepsia, esaterako; hortaz, medikazioa eman behar zaie. Beste batzuek eurek kontrolatzen dute gurpildun aulkia...

Oporrotako gauzarik onena, eurenendako eta zeuretako?

Eurenendako, primeran pasatzen dutela: askorendako, guraso barik bidaiatzeko aukera bakarra da, eta hori gauza handia da eurenendako. Beti daude pozik, gertatzen zaiena gertatzen zaiela. Ezohiko ekintzak egiten dituzte: igeri, eskulanak egin, bela egin...

Niretako, aldiz, oso lan nekeza da, baina baita oso pozgarria ere: eurak pozik eta disfrutatzen ikusteak animuak ematen dizkit eta morala igotzen dit.

Zerbitzu bereziak

Urrituendako espresuki antolatutako gero eta zerbitzu gehiago dago. Hala, bidaia-agentzia batzuen espezialitatea dira urrituendako bidaiak: www.egyptforall.com web-gunea da horren adibide. Bestetik, hegazkin-konpainiak oso kontzientziazioa daude eta behar den laguntza gutzia ematen dute.

Konkretuki garun-elbarritasuna duten gutxituek ere eskaintza berezia dute. Hala, Aspace elkarteak eurenendako irteerak, egonaldiak eta lagunartean egiteko ekintzak antolatzen ditu udarparterako.

Uztailak 1-8

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MATRIKULAK

DEBAGOIENA

► **Lanbide Hastapenean** matrikula egiteko aukera dago uztailaren 4tik 15era bitartean. Ikasturte berrian, hainbat profil landuko dituzte: modulu-altzariak egiteko laguntzailea, industria mekanikoko laguntzailea...

DEIAK

ANTZUOLA

► **Erretiratuen Eguna** ospatuko dute uztailaren 10ean. Bazkaria egingo dute, eta gaur eta bihar salduko dituzte txartelak erretiratuen lokalean, 18:00-19:00 ordutegian. 3 euro da.

ARRASATE

► **EHNA tramitatuko dute** bihar, zapatua, Monterronen, 11:00etatik 13:00etara bitartean.
► **Gazteendako hainbat ekintza** antolatu ditu Txatxilipurdik: hilaren 4an, astelehena, hondartzara irteera egingo dute; 6an, eguaztena, zinema emanaldia eta afari-merienda, 19:30ean; eta 7an, eguena, Udalara irteera. Argibideetarako, deitu 943 79 54 46 edo 943 77 17 39 telefono zenbakietara.

BERGARA

► **San Martzialgo erromeriako** mahaiaik eta aulkiak hartzeko eguna da bihar, zapatua, San Martzialgo kantina ondoan, 17:00-20:00; beroiek entregatu beharko dira, erromeriaren ondoren, San Martzialgo kantina ondoan, 19:00-21:30; eta fidantza jasotzeko egunak dira hilaren 4tik 8ra bitartean, kultura etxean, 17:00-20:00 ordutegian.
► **Ilatargi Astronomia Taldeak** Gorfara irteera egingo du hilaren 4an, astelehena. Espazio-ontzi baten eta kometa baten arteko talkaren efektua ikusiko dute, zeru garbia badago. 22:30ean batuko dira autobus geltokian.

DEBAGOIENA

► **13. Denontzako Kirol Jaia** izango da datorren zapatuan, uztailak 9, Arrasateko Iturripe kiroldegian, 10:30-13:00. Gutxitu fisikoei denetarikoa ariketak egingo dituzte. Izena emateko aukera dago 943 77 91 67 telefonoan.

OÑATI

► **Natura ibilbide gidatuak** antolatu dituzte turismo bulegoak eta natur eskolak. Bihar, zapatua, Orkatzategiko hegazti koloniaren gainekoa egingo dute; etzi, domeka, mendiko larreen eta artzaintzaren gainekoa. Izena emateko, deitu 943 78 34 53 telefonora.
► **Ezetz Iepoa jarri** antzezlanerako sarrerak salgai daude kultura etxean 7 eurotan. Emanaldia hilaren 8an izango da Santa Ana aretoan, 22:30ean; egunean bertan erosita, txartelak 8 euro kostatuko dira.

IKASTAROAK

ARAMAIO

► **IV. Aramaio Uda Ikastaroak** egingo dituzte hilaren 4tik 7ra bitartean. *Euskal Herria, 1789-1848, historia, hizkuntza, artea* da izenburua, eta gaiarekiko interesa duen edozeini dago zuzenduta. Izena emateko, deitu 902 19 96 47 telefonora.

ARRASATE

► **Gazteendako eta emakumeendako ikastaroak** antolatu ditu Udalak. Gazteendako, argazkigintza digitala da eskaintza bat; uztailaren 4tik 20ra izango da, astelehen eta eguaztenetan, 18:00-20:00, EPAko egoitzan. Photoshop programarekin hasiera maila landuko dute. Bigarren ikastaroa da capoeira dantzarena, uztailaren 5etik 20ra, martitzen eta eguaztenetan, 19:00-21:00, Monterronen. Bi horietarako matrikula da 15 euro, 10 ikasle eta langabeendako. Azkenik, emakumeendako mendi orientazio ikastaroa dago uztailaren 5, 7 eta 9an, Emakume Txokoan. Ordutegia da 18:00-20:00. Matrikula da 6 euro

arrasatearrendako, 3 euro langabeendako eta 9 euro kanpokoendako. Argibideak, 943 77 00 65 telefonon.

BERGARA

► **Txalaparta ikastaroa** egingo dute uztailaren 11tik 21era bitartean, astelehenetik eguaztena, 19:00-20:30 ordutegian. Izena emateko, joan Jardunera uztailaren 7a baino lehen. 20 euro da, 15 bazkide eta langabeendako.

DEBAGOIENA

► **Giza eskubideen gaineko** graduatu-ondoko *on-line* ikastaroa antolatu dute Asmoz fundazioak eta Foru Aldundiak. Batez ere, abokatuei, azken ikasturtean dauden unibertsitate ikasleei eta Gobernu Kanpoko Erakundeetako kideei dago zuzenduta. 250 ordukoa da. Izenematea zabalik dago 943 21 23 69 telefonon edo www.asmoz.org/DH webgunean.

ESKORRIATZA

► **Zure egunkaria irakurri** delako ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 16:00etatik 17:00etara bitartean.

OÑATI

► **Hainbat ikastaro** emango dituzte datozen egunotan KZGunean: Internet ikastaroa eta *Foroak eta FAQ* (hilak 4, astelehena), *Iberdrola mikologia* (hilak 5, martitzena) eta e-finantzen gainekoa (hilak 6 eta 7). KZGuneko uztailako ordutegia honakoa da: 09:00-13:00 eta 14:00-18:00.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Loixe zeramika eskolak** erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Monterronen, 18:00etan. Uztailaren 15era arte egongo da zabalik, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegian.

BERGARA

► **Emakumeen eskularen** erakusketa dago kultura etxean, Bergarako Emakumeen Elkarteak (BEKE) eta Udalak antolatuta. Uztailaren 3ra bitartean izango duze ikusteko aukera.

► **Eduardo Arrillaga** argazkilariren lanak ipiniko dituzte Aroztegi aretoan gaur, egubakoitza, 20:00etan. Hilaren 24ra bitartean izango da erakusketa ikusteko modua. *Sokamuturra* du izenburua bilduma horrek, eta zuri-beltzeko 34 argazkik osatzen dute.

ESKORRIATZA

► **Antzinako autoen erakusketa** egingo dute etzi, domeka. 11:00etatik aurrera izango dira autoak Herriko plazan.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **San Martzialgo jaiak** ospatuko dituzte bihar eta etzi.

ARAMAIO

► **Aramaio jaiak** ospatuko dituzte gaur, egubakoitza, hasi eta datozen egunotan. Gaur, 19:00etan, jai hasiera ekintzak izango dira, eta rock kontzertuak txosnetan; bihar, zapatua, magia saioa, txaranga, Txirritolinpiadak, mus eta briska txapelketak, antzerkia eta rock kontzertuak Herriko plazan; etzi, domeka, meza, jolasparkea, euskal kirolak, bertso emanaldia, txaranga... izango dira; eta astelehenean, hilak 4, jolasparkea, meza, gaztetxoan berbera, musika emanaldiak eta jaialdia txosnetan, besteak beste.

ARRASATE

► **Jai errozieroa** egingo du Al Andaluz elkarteak etzi, domeka. 11:30ean salbea abestuko diote Rozioko Ama Birjinari, eta prozesioan joango dira gero Santa Teresako elizaraino. 12:30ean, meza abestua egingo dute; segidan, Arruene parkera eramango dute eta ospakizun gehiago egingo dituzte han 19:00ak arte.

BERGARA

► **San Pedro eta San Martzial** jaien barne, bihar, zapatua, buruhandi eta erraldoien kalejira eta Bergarako Musika Eskolaren eta Orfeoaren ikasturte bukaerako kontzertua izango dira. Etzi, domeka, San Martzialgo erromeria egingo dute: 10:00etan, gudi igoera; 11:00etan, meza, eta segidan, hainbat ekintza. Egun horretan, herri autobusa ibiliko da. San Martzialerako bidea autoendako itxita egongo da 21:00etatik 22:00etara.

ESKORRIATZA

► **San Pedro jaien barne**, gaur, egubakoitza, Euskal Jai eguna izango da: euskal dantza ikuskizuna, talo eta sagardo jana, umeendako jolasak, trikiti kalejira, bazkaria, euskal presoan aldeko kalejira eta dantzaldia izango dira. Gauerdian, jaien bukaera traka egingo dute.

OÑATI

► **Torreuzoko jaiak** ospatuko dituzte bihar eta etzi.



► JAIK

ELGETAKO JAIETAN, AZOKA NAGUSI BEREZIA ETA EGITARAU ZABALA

Azoka Nagusiko jaiak ospatzen ari dira elgetarrak. Aurtengo berezitasuna da 25 urte betetzen direla Azoka Nagusia berreskuratutako, hamar urteko etenaldiaren ondoren. Hori dela eta, etzi, domeka, Azoka Nagusia berezia izango da: 20 uztarriz izango dira EAE osotik. Horrez gain, elikagaien 33 postu, 30 artisau eta baserriko tresnak ere izango dira. Azokaz gain, baina, askotariko ekintzak daude aukeran jai-zaleendako: gaur, egubakoitza, umeendako eta erretiratuendako ekintzak, zezanak, pilota txapelketa, dantzaldia, triki-poteoa... izango dira; bihar, zapatua, herri bazkaria eta koadrilen jokoak, bolo txapelketa, gaztetxeko kontzertuak eta beste batzuk; eta etzi, domeka, azoka, dantza, sardina jana eta kale antzerkia.

Non: Elgetan. **Noiz:** denetarikoa ekintzak asteburu osoan; Azoka Nagusia, etzi, uztailak 3, domeka.

Zinema

ANTZUOLA

FRONTOI TXIKIA

Ez da emanaldirik egongo.

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

Ez da emanaldirik egongo.

ARRASATE

MONTERRON

El penalti más largo del mundo

Egubakoitza: 22:30.

ELGETA

ESPOLOIA

Ez da emanaldirik egongo.

OÑATI

KULTURA ETXEA

XXX 2 - Estado de emergencia

Egubakoitza: 22:30.

Zapatua: 19:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

UNZAGA

No sos vos, soy yo

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00,

19:30, 22:15.

Astelehena, martitzena eta

eguztzena: 19:30, 22:15.

Eguztzena, ikuslearen eguna.

RIALTO

Batman begins

Egubakoitza: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka: 17:00,

19:30, 22:15.

Astelehena eta martitzena:

19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

GURIDI

La guerra de los mundos

17:30, 20:00, 22:30.

Star wars, episodio 3

17:00, 19:45, 22:30.

Love me tender

17:30, 20:00, 22:30.

La memoria del asesino

17:30, 20:00, 22:30.

Madagascar

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Batman begins

17:00, 19:45, 22:30.

Tercera identidad

17:30, 20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

Star wars, episodio 3

17:00, 19:55, 22:30.

El reino de los cielos

17:00, 19:55, 22:30.

Rottweiler

17:30, 20:45, 22:45.

Madagascar

17:30, 20:15, 22:45.

La guerra de los mundos

17:30, 20:15, 22:45.

Batman begins

17:00, 19:55, 22:30.

La intérprete

17:20, 20:00, 22:35.

Kung-fu-sión

17:30, 20:15, 22:45.

Tapas

17:00, 19:55, 22:30.

Martitzena eta eguna,

ikuslearen eguna.

FLORIDA-GURIDI

A good woman

17:30, 20:00, 22:30.

El tren de la memoria

17:30, 20:00, 22:30.

Presidente Mitterrand (J.B.A.)

17:30, 20:00, 22:30.

Héro a rayas

17:30.

Fugitivos

17:30, 20:00, 22:30.

Tapas

17:30, 20:00, 22:30.

Mi padre es ingeniero

17:30, 20:00, 22:30.

Pasos

20:00, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Un rey en La Habana

20:10, 22:20, 00:30.

La guerra de los mundos

16:30, 19:00, 22:00, 00:45.

El reino de los cielos

16:00, 18:30.

Madagascar

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

00:30.

Héro a rayas

16:00, 18:00, 20:00.

Star wars, episodio 3

16:00, 18:50, 21:50, 00:35.

Love me tender

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

00:30.

Danny the dog

16:00, 18:05, 20:10, 22:20,

00:30.

Million dollar baby

22:00, 00:45.

Hechizada

16:00, 18:10.

Batman begins

16:00, 18:50, 21:50, 00:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitz

eta zapatuan.

Eguztzena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Tapas

12:15, 15:45, 17:45.

La guerra de los mundos

12:15, 17:15, 19:45, 22:15,

00:45.

El sueño de una noche de San Juan

12:15, 16:45, 18:30, 20:15,

22:00, 23:45.

Madagascar

12:15, 16:00, 18:00, 20:00,

22:00, 00:00.

La intérprete

12:15, 16:30, 19:00, 21:40,

00:15.

El reino de los cielos

12:15, 15:55, 18:50, 21:45,

00:25.

Million dollar baby

22:05, 00:40.

El internado

12:15, 16:40, 18:40, 20:40,

22:40, 00:40.

El gran golpe

12:15, 16:50, 18:50.

Batman begins

12:15, 15:40, 18:40, 21:40,

00:30.

Héro a rayas

12:15, 16:10, 18:15, 20:20.

El calentito

12:15, 16:20, 18:20, 20:20,

22:20, 00:20.

Kung-fu-sión

12:15, 16:05, 18:05, 20:05.

Danny the dog

12:15, 16:00, 18:00, 20:15,

22:30, 00:45.

Star wars, episodio 3

12:15, 17:30, 20:30, 22:30.

Un rey en La Habana

22:25, 00:25.

11:14, destino fatal

20:50, 22:40, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz

eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna

(jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

La intérprete

12:00, 17:15.

El sueño de una noche de San Juan

12:20, 16:10, 18:10, 20:10,

22:10, 00:30.

Kung-fu-sión

12:00, 16:10, 18:20, 20:30,

22:40, 01:00.

Héro a rayas

12:15, 16:05, 18:05, 20:00.

El reino de los cielos

12:00, 16:15.

El calentito

12:20, 16:00, 18:10, 20:20,

22:30, 00:45.

Batman begins

12:00, 16:10, 19:10, 22:05,

01:00.

Star wars, episodio 3

12:00, 16:00, 19:00, 22:00,

01:00.

Madagascar

12:15, 16:15, 18:15, 20:15,

22:15, 00:30.

No sos vos, soy yo

12:15, 16:10, 18:20, 20:30,

22:40, 01:00.

Dead end

12:00, 16:25, 18:25, 20:25,

22:25, 00:30.

La guerra de los mundos

12:15, 17:00, 19:30, 22:15,

01:00.

Tercera identidad

20:00, 22:20, 00:30.

20 centímetros

22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz

eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Eguztzena, ikuslearen eguna.

► **Zubillagako jaiak** ospatuko dituzte asteburuan. Besteak beste, ekintza hauek izango dituzte: gaur, egubakoitza, film laburrak emango dituzte; bihar, zapatua, umeendako jolasak, bertso saioa, dantzaldia eta mozerro gaua izango dira, besteak beste; eta etzi, domeka, nagusiei omenaldia, meza, luntxa, pilota txapelketen finalak, zinta lasterketa eta dantzaldia.

MUSIKA

ARRASATE

► **Vagón de Cola (Gasteiz)** taldeak rock-pop kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Gure-Leku tabernan, 23:30ean.

► **Big Band** taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Amaia antzokian, 22:30ean.

► **Ene! (Kogollo Crew)** disko jartzaileak emanaldia egingo du bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 04:00etan.

BERGARA

► **Ass trio** taldearen jazz emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Espolioan, 22:30ean.

► **Blue Station Band eta The Hound Dogs** taldeek joko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan. Bi taldeetako hainbat kide bergararrak dira.

► **Cleopatra Jones, Los Frenos eta Paniks** taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **The Last Combat** taldearen emanaldia izango da bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 01:00etan.

OÑATI

► **Gazte Eguna** antolatuko du Oñatiko Gazte Asanbladak bihar, zapatua. 16:30ean, 11 talderen kontzertua izango da Herriko plazan.

LEHIAKETAK

OÑATI

► **Oñatiko jaietako** programaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Oñatin jaiak edo han bizi direnei dago zuzenduta. Teknika libre da, eta derrigorreko testua, hauex: *Oñatiko jaiak 2005*. Lanak turismo bulegoan edo kultura etxean entregatu behar dira uztailearen 15a baino lehen, lelo edo ezizen sistema bidez. Irabazleari 250 euro emango diote, eta bigarrenari, 125.

KRITIKA

FUGITIVOS

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: André Téchiné.

AKTOREAK: Emmanuelle Béart, Gaspard Ulliel.

Xugitivos 1940. urteko Frantzia kokatuta dago. Alemaniarrak Parisetik gertu dabilta, eta jendea hirietatik ihesean dabil. Errepideetan jende pila biltzen da, eta alemaniar hegazkinen erasoaldietatik gordetzeko, jendea, bide nagusia utziz, mendian eta basoetan ezkutatzen da. Kontatzen zaigun istorioan, ama eta bi seme-alaba bide-

an dagoen 17 urteko mutil batekin elkar-tzen dira. Laurok gerragatik utzitako basetxe batean babestuko dira. Eta hortik aurrera, filmean guduaren oihartzunak noizbehinka agertzen badira ere, beste baldintza batzuetan, agian, elkar ezagutuko ez zuten lau pertsonaion harremanak azalduko dira.

Ama irakaslea da eta ahalegin du seme-alabei heziketa ona ematen. Agertzen den gazteak kutsu misterio-tua du, ez du bere bizitzari buruz hitz egin nahi, ez du kultura intelektualik, baina bai, ordea, baldintza mugatuetan moldatzeko eta horiei etekinak ateratzeko abilezia, eta bere joeran aldaketa nabarmenak sumatzen dira: batzuetan samurra eta tolesgabea, beste batzuetan zaputuz, mesfidati eta manipulatzailea. Bi mundu desberdinetako pertsonaiek direnez, horien artean ten-



tsio eta erakarpeneko momentuak izango dira. Eta gaztearen eta beste hiru pertsonaien artean sortzen diren harremanen deskribapenean datza filmaren indar nagusia.

André Téchiné-k badaki gazteen mundura hurbiltzen. *Los Juncos Salvajes*-en ederki islatzen zuen neraberen

sentimenduak eta ardurak, aktore gazteetatik lan ederrak lortzen zituen, eta *Fugitivos*-en gauza bera gertatzen da. Gainera, Emmanuelle Béart-en presentzia ere bada, zuzendariak lehen plano ugari eskaintzen dio eta aktoreak ederki erakusten du kamarenganako duen magnetismoa eta indarra. Alde horretatik filma ondo dago. Beste aldetik, intriga txiki bat sortu nahi da gazte ezezagunaren inguruan, eta, agian, gertatzen denak ez du sorpresa handiegirik, gertatzen diren gauzak ez dira oso originalak izango, baina badaude ondo filmatuak eta ondo eginak. Horrela, zerbait akademikoa edo aspergarria izan zitekeen filma, duen sentsibilitatearengatik, gustura ikusten den eta gomen da daitekeen film bihurtzen da.

ANTONIO ZABALA

Million dollar baby: ●●●● | *El reino de los cielos*: ●●● | *Tapas*: ●●● | *La intérprete*: ●●● | *Batman begins*: ●● | *Star wars, episodio 3*: ●●

ESKASA: ● BALEKOA

LAGERTU
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79
Inmobiliaria Lehen, Inmof3

SALGAI

ARRASATE

- Zerrajerak. Hiru logela, bainugela bi, egongela, sukaldia, terraza eta garaje itxia. Primerakoa.
- Biteri kalean, 120 m². Lau logela, bainugela bi, egongela, sukaldia, hall eta terraza. Berritua.
- 77 m². Hiru logela, egongela, sukaldia-jangela, bainugela bi. Kanpoaldera ematen du. Duela gutxi guztiz berriztatua.
- Erquin. 54 m². Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Denak kanpoaldera ematen du. 191.723 euro / 31.900.000 pta.

SORALUZE

- 71 m² + 55 m²-ko terraza. Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela bi. Kanpoaldera ematen du. Duela gutxi eraikia. 182.708 euro / 30.400.000 pta.

BERGARA

- Erdialdea. 95 m². Hiru logela, egongela, sukaldia, despentsa eta bainugela. Duela urtebete berriztatua.
- Bolu. 90 m². Hiru logela, egongela, sukaldia-jangela, bainugela eta komunak. Igogailua. Trastelekua. Berriztatua. Kanpoaldera ematen du.
- 60 m². Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Guztiz berriztatua. 228.385 euro / 38.000.000 pta.

LAGERTU
IMMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutx 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa erdialdean 180 m².
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Erdialdea 50 m². Berrizteko.
- Erdialdea 78 m². Oso ondo.
- San Pedro. 110 m². Berrizteko.
- Bolu 82 m². Garajea.
- Matxiategi 75 m². Eguzkitua.
- Masterreka 70 m². Oso ondo.
- Duplexa Bolun 90 m².
- Artekalea 60 m². Oso ondo.
- Kolpo Elezalde 80 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
- Txalata 300 m². Berria.
- Osintxu 87 m². Oso ondo.
- Mugertza 104 m². Terraza.
- Artekalea 30 m². Ondo.

Antzuola:

- Hamaitak etxebizitza berri.
- 88 m². Garajea. Oso ondo.

DEBA GARAIA
IMMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugale 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:

- Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara.
- Erdialdea 90 m². Berrizteko.
- Artekalea 60 m². Oso ondo.
- Bolu, duplexa 90 m². Garajea.
- Duplexa, erdialdean 116 m².
- Masterreka 69 m². Oso ondo dago.
- Martoko 60 m². Berrizteko.
- Elorregi 64 m². Berrizteko.
- Erdialdea 89 m². Berrizteko.
- Duplexa, erdialdean 170 m².
- Aranerreka 82 m². Garajea.
- San Pedro 110 m². Berrizteko.
- Txalata 300 m². Berria.

ANTZUOLA:

- Bustinzuri 88 m². Berria.
- Sorraluze:
- Ezoz 83 m². Ondo dago.
- Errekale, duplexa 97 m². Ondo.
- Sagar-Ereka 50 m². Oso ondo.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

104m² dituen etxea salgai. Garajea, jardina eta txabola ere baditu. Guztiz jantzita eta berogailuarekin. 646 59 56 56.

Antzuola. Etxebizitza salgai. Egoera onean. 607 95 79 11 edo 610 73 52 23.

Arrasate. Erquin auzoan. Hiru logela, sukaldia, egongela eta bainugela. Bi balkoi ditu. 615 75 04 72.

Arrasate. Zerrajerako 5. zenbakian etxebizitza salgai. 943 03 47 59 edo 680 79 77 24.

Bergara. Bolun 90 metro koadroko duplexa salgai. Trastelekua eta garajea ditu. 636 34 71 40.

Bergara. Erdialdean. Berritua. 943 53 21 43 edo 607 15 26 62.

Bergara. Etxebizitza berritua, 82m², altzariz erdi jantzita, hirugela, igogailua. Telefonoa: 699 06 31 08.

Bergara. Ibargarain. 109 m². Berria. 667 73 11 63.

Bergara. Masterrekan etxebizitza salgai. Erdi jantzita eta guztiz berritua. 72 metro koadro. Teiltupea ere badauka. 607 15 26 62.

Donostia. Etxebizitza salgai Antiguana. 104 m². Egon-gela oso handia, bi logela.

Gauz deitu, 21:30etik 22:30era. 943 37 72 92.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldia, bainugela, ganbara eta igogailua. Aukera ezin hobea. 645 71 76 25.

Soraluze. Bi urteko duplexa. 120 m². Lau logela, hirubainugela, sukaldia hornitua, jan-egongela, trastelekua eta terraza txikia. 37.500.000 pezeta. 661 34 59 84.

103. ERRENTAN EMAN

Almeria. Etxebizitza errentan, uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostaldietan. 649 03 47 20 edo 950 30 33 35.

Arexabaletan etxebizitza alokatzen da. 943 79 40 19.

Arrasate. Atiko bat errentan ematen da. 659 72 35 87.

Benidorm. Apartamentua alokatzen dut abuztuan. 945 29 33 97 edo 665 73 23 99.

Benidorm. Etxebizitza errentan ematen da Levanteko hondartzan. Igerilekua, garajea eta aire girotua. 666 67 06 94.

Benidorm. Itsasora begira. Aparkalekua du. Telefonoa: 630 41 84 65.

Conil (Cadiz). Apartamentua errentan Bateles hondartzan. Irailetik aurrera. 680 44 26 68.

Donostia. Abuztuan Amaran etxebizitza errentan. Dena

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo sailkatuak@goiena.com

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA.
943 78 22 80
665 72 24 46

ARETXABALETA

EMAKUMEA BEHAR DA JATETXEAN ZERBITZARI JARDUTEKO.
943 71 43 45

ARRASATE

KOMERTZIALAK BEHAR DIRA ARRASATE INGURURAKO. AUTOA EDUKITZEA BEHARREZKOA.
666 40 65 19

JATETXEA

SUKALDARIA BEHAR DA. AUTOA EDUKITZEA BEHARREZKOA.
655 71 18 37

kanpora begira. 943 71 50 87 edo 943 71 41 49.

Donostia. Antigua auzoan, abuztuko bigarren hamabostaldian. Bi logela, garajea. 15 egun, 900 euro. 630 08 24 17.

Donostia. Etxebizitza alokatzen da Gros auzoan, Zurriola hondartzaren lehen lerroan. Goitik behera berriztatua. Uztailean, 2.404 euro; abuztuan 2.404 euro; irailean, 1.803 euro. Telefonoa: 943 29 29 84.

Donostia. Etxebizitza errentan, Kursaal eta Zurriola ondoan. Abuztuko bigarren hamabostaldirako (Aste Nagusia barne). 665 73 59 83.

Gandia. Apartamentua hondartzan ondoan. Urbanizazio itxian eta igerilekuarekin. 645 71 05 83.

Haro. Apartamentua errentan ematen da, igerilekuarekin. 659 72 35 87.

Noja. Duplexa errentan ematen dut, hondartzatik gertu, itsasoari begira eta terrazaduna. 696 90 94 43.

Peñíscola. Apartamentua hondartzatik 50 metrora. Parkinga eta igerileku pribatua. Uztailean, abuztuan eta irailean. 943 79 48 82.

Salou. Apartamentua errentan Jaime I pasealekuan. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

Salou. Apartamentua alokatzen da. Guztiz jantzita eta igerilekuarekin. Telefonoa: 657 73 94 25.

Veran (Almeria) etxebizitza alokatzen da. Guztiz jantzita eta igerilekuarekin. Telefonoa: 657 73 94 25.

105. ETXEA OSATU

Arexabaleta. Ikasten dabil-tzan bi neska gura ditu emakume batek elkarrekin bizitzeko. Errenta bikiagoa izango da. 943 79 79 09.

Arexabaletan etxea osatzeko pertsona bat behar da. 605 77 46 57.

Arrasate. Neska euskaldun bat logela bila dabil uztaile eta abuzturako. 635 73 63 78.

Bergara. Neska behar da etxebizitza osatzeko. Utzi mezua. 943 46 15 74.

Donostia. Bi lagun behar dira etxebizitza osatzeko, urritik aurrera. Presazkoa. Telefonoa: 607 91 15 43.

Oñatin pertsona bat behar da etxea osatzeko. Etxea San Lorenzo auzoan dago. 610 24 01 38.

ak zaintzeko prest. 699 57 12 68.

Bergara. Uztailean eskola partikularrak eman edo umeak zainduko nituzke. 629 11 24 56.

Debagoiena. Neska gazte bat gertu lanerako. 635 74 60 78.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Laguntza eskolak emango nituzke udan. 645 73 04 69.

Arrasate. Uztailean umei ingelesezko eskolak emateko prest. Ordelegia ikaslekin adostuko da. Marina. 618 82 02 48.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Artzain txakurkumea salgai. 680 55 17 65.

Katu persiarrak. Linea amerikarra. 680 44 26 68.

Setter txakurkumeak. Hiru koloretakoak. Gurasoak, oilagorretan ibiliak. Maiatzaren 19an jaioak. 678 43 31 07.

704. BESTELAKOAK

Katua zaintzeko pertsona behar da abuztuko lehen hamabostaldian. Egunean ordubete. 637 91 33 81.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Makatzenan garaje itxia salgai. 945 12 09 94.

Oñati. Garajea salgai Olakua 16-17-18ko lehenengo solairuan. Ate berria. Telefonoa: 653 71 78 80.

203. ERRENTAN EMAN

Arexabaleta. Andramari auzuean, itxia. Telefonoa: 943 77 12 81.

Arrasate. Roneon. Deitu 20:30etik aurrera. Telefonoa: 943 79 19 64.

4/ LANA

402. ESKAERAK

26 urteko neska euskaldunak haurrak zainduko lituzke uztaile goizetan. Haur hezkuntzako titulua eta esperientziarekin. 656 76 65 69.

Arexabaleta zein Eskoriatzan umeak zainduko nituzke udan. 21 urte ditut eta Haur Hezkuntza ikasten nabil. Maite. 695 34 91 69.

Arrasate. Neska gaztea ume-

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 gasolina. Bost urte ditu. 150.000 km. Oso egoera onean dago. Prezio interesgarria. 943 77 00 34.

Chrysler Voyager. Estra askorekin. 607 22 82 01.

Citroën Saxo 1.5 D. Ondo dago. Sei urte. 135.000 km. 605 73 85 23.

Land Rover 88 Super autoa salgai. Egoera onean. Beti garajejan. Gauz deitu. 943 78 07 19.

Opel Kadett GSI. 130 ZP. Ondo dago. Merke. 656 73 54 80.

Opel Vectra 2.0 TDI. Familiarra. Osagarri guztiak. Prezio ona. 627 93 09 42.

Volkswagen California, 1992koa, dieselak. Oso ondo dago. 656 76 87 93.

Volkswagen Golf GTI III autoa salgai. Hiru ate. Zuria. Xabier. 943 76 71 77 edo 647 51 52 54.

Yamaha WR 250F 4T motorra salgai. BRR matrikula. Ondo dago. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

Yamaha WR-450 motorra. Matrikulatuta, gutxi erabilita. Telefonoa: 659 77 21 50.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bergara. Hesolak (estakak) saltzen dira. Bakoitza 2 eurotan. 605 72 17 30.

Jardun Euskara Elkarte

LAN ESKAINTZA

Jardun Euskara Elkarteak LEHEN HEZKUNTZARAKO HAURREN DINAMIZATZALEA behar du, arratsaldeetan jarduteko.

Kontuan hartuko dena:

- Euskara maila ona.
- Hurrekin esperientzia.

Baloratuko da:

- Arloarekin zerikusia duten ikasketak.
- Harremanetarako erretasuna.
- Informatika ezagupenak.
- Herrikoa izatea.

Curriculum-vitae aurkezteko azken eguna uztailaren 13a. Argibide gehiago Jardunen edo 943763661 tfnnoan.



Lasterketako bizikleta salgai. Vitus 979 aluminiozko kuadroa. 56 neurrikoa. 200 euro. 660 40 64 75.

Bizikleta salgai. Cannondale R600 (Cadd5) beltza. 54 neurrikoa. Plato hirukoitza. Bi urtekoa. Gutxi erabilitakoa. 800 euro. Telefonoa: 678 72 89 18.

Denda-karroa salgai. 3,17 metroko luzera dauka eta 1,10 metroko altuera. Lau udatan erabilitakoa, eta beti garajejan gorde izandakoa. Felix. 645 70 59 13.

Emaztegiaren soinekoa salgai. 42-44 neurria. 480 euro. 943 08 00 81 edo 615 72 64 30.

Kanpin denda. Quechua etxekoa, Arpenaz T6-XL AIR. Sei lagunendako gertatuta. Zabaleran 4,20 m eta luzeran 5,50 m. Aproposa talde handiendako eta kanpaldi librea egiteko. Estreinatuta gabe. 680 24 06 77.

Olympus III 115K argazki-kamera eta Vodafone Live

telefonoa salgai. Urtebete besterik ez daukate. Telefonoa: 627 62 53 30 edo 943 79 40 44.

Play Station 2 eta 40 joko salgai. 215 euro. Telefonoa: 943 79 72 53.

802. EROSI

Bizikleta estatikoa erosi-ko nuke. Deitu telefono honetara: 696 96 72 34.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutil batek beste mutil batekin harremanak izan gura ditu. Interesatuak bidali SMSak honako telefono zenbakira. 665 75 58 74.

Mutil batekin harremanak izan gura ditut. Xabi dit uzena. Antzeko asmoak badituzu idatzi helbide honetara: 91 posta-kutxa, 20560 Oñati.

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

KIROL INFORMAZIOA LANTZEKO KAZETARIA BEHAR DU.

GOIENKARIAn jardungo du lanean, batik bat.


Eskatzen da:

- Euskaraz idazten maila ona izatea.
- Ordenagailuak erabiltzen jakitea.
- Gidatzeko baimena eta autoa edukitzea.

Eskaintzen da:

- Lan kontratua.
- Etorkizun handiko proiektuetan parte izatea.
- Lanpostua lortzen ez duenak Goiena multimedia enpresaren (prentsa idatzia, irratia, telebista eta telematika) lan-poltsa osatuko du.

Interesatuok bidali curriculum, uztailaren 12a baino lehen, ondoko helbidera:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
edo admi@goiena.com



C&C AKADEMIA

LLONGUERAS

IRAKASKUNTZA ZENTROA

ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA

Aurrera, eta zugandik gertu! Euskal Herriko irakaskuntza zentro bakarra!

C&C Llongueras diploma ofiziala

Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan

Nazioarteko lan-poltsa

Olagibel kalea 61, behea. GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60 • Posta-e: ces-llongueras@ya.com

Hemen GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com


Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

ALDI BATERAKO LAN ESKAINTZAK

OBRA TEKNIKARIA OBRA IKUSKATZAILA


Izena emateko epea: uztailaren 2tik 13ra arte (biak barne).

Oinarri-arauak: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN


Pertsonal saila ■



Iker Sagastizabal oñatiarra eta **Itsaso Barbero** aretxabaletarra zapatuan, uztailaren 2an, ezkonduko dira Oñatin. Ezkonbidaian Mexiko aldera joateko asmoa daukate. Zorionak, familiako guztien partetik.



Maitane Arregi eta **Ekaitz Rodriguez** ekainaren 30ean Thailandiatik bueltatu ziren, ezkonbidaiatik. Ekainaren 11n ezkondu ziren Aretxabaletan. Bidaia gozatu dutelakoan eta oso zoriontsu izango direlakoan, zorionak eta besarkada handi bat, familiako eta lagunen partetik.



Jose eta **Maite** arrasatearrak uztailaren 2an ezkonduko dira, Bergarako Santa Marina elizan. Gero, Gure Ametsa jatetxean bazkalduko dute eta eztei bidaia AEBra egingo dute. Zorionak familiako partetik.

HILDAKOAK

Jose Antonio Madina Altzola. Oñatin, ekainaren 20an.
Maria Concepcion Gomez Garcia. Arrasaten, 22an. 84 urte.
Esperanza Zulaika Txintxurreta. Bergaran, 22an. 82 urte.
Iker Uribetxebarria Azurmendi. Arrasaten, 23an. 27 urte.
Maria Trinidad Uña Fuentes. Bergaran, ekainaren 24an. 62 urte.
Juan Soriano Plazaola. Oñatin, ekainaren 24an. 73 urte.
Gregorio Garai Txintxurreta. Arrasaten, ekainaren 26an. 69 urte.
Maria Africa Juaristi Garitano. Bergaran, 27an. 89 urte.
Lucio Zeziaga Lazpiur. Arrasaten, ekainaren 27an. 81 urte.
Antonio Ormaetxea Amoriza. Arrasaten, ekainaren 28an. 77 urte.
Wladimiro Regevsky Zoco. Arrasaten, ekainaren 29an. 58 urte.
Markos Lete Urtzelai. Oñatin, ekainaren 29an. 69 urte.

ESKELA

Iker Uribetxebarria Azurmendi

Apo

2005eko ekainaren 23an hil zen, 27 urte zituela.

*Gure artean denbora gutxi egon arren,
jakin duzu gure maitasuna irabazten,
betirako gure gogoan, betirako Apo.*



Zure lagun koadrila.
Arrasaten, 2005eko uztailaren 1ean.

URTEURRENA


Angel Maria Uribetxebarria Altube

gaztea

Istrupuan hil zen 1985eko uztailaren 6an.



Bere arimaren alde Aita
Jainkoari otoitz egiteko
eskatzen dizuegu.
Eskerrik asko
familiaren partetik.



Arrasaten, 2005eko uztailaren 1ean.

ESKER ONA

Iker Uribetxebarria Azurmendi

Sallent de Gallegon hil zen 2005eko ekainaren 23an, 27 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko uztailaren 1ean.

ESKER ONA

Juan Soriano Plazaola

Oñatin hil zen 2005eko ekainaren 24an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko haren emaztearen,
seme-alaben eta biloben izenean.




Oñatin, 2005eko uztailaren 1ean.

ESKER ONA

Gregorio Garay Txintxurreta

Gasteizen hil zen 2005eko ekainaren 26an, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko uztailaren 1ean.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo



Policlínica Gipuzkoa

ARRASATE

Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 2

Irun: 943 61 78 88

CG
**CONSULTORIO
GINECOLOGICO**





GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



AURRETIK



ONDOREN

Granoak desagertarazteko tratamenduak gorputzeko hainbat ataletarako balio du.

Granoak, depilazioa eta orbanak: zalantza ohikoenak

1. Bizkarrean grano batzuk ditut eta pomada bat ematen ari naiz; 30 egun igaro eta gero granoak ez zaizkit zeharo joan, ez dakit noiz arte egon behar dudana pomada ematen.

Gomendatu dizuten denboran eman behar duzu pomada (pentsatzen dut jarraitu beharreko pausoak zeintzuk diren esan dizutela); dena dela, produktu hori eman ostean ez da komeni eguzkitan egotea fotosentikorgarria delako (pomada hori normalean neguan erabiltzen da, udan emanez gero azala erre egin daitekeelako, nahiz eta babes osoko krema eman).

2. Argizariarekin depilatu eta egun gutxira grano txikiak irteten zaizkit, eta ilea berriro moztu behar dudanera arte ez zaizkit joaten. Zer egin dezaket?

Lehenengo eta behin ez estutu, kasu batzuetan depilatu eta 15-20 egunera grano txiki batzuk agertzen dira; hori gerta daiteke ondoren aipatzen ditugun arrazoiengatik: folikulu pilosebazeoa (ilea egoten den hodia) oso itxia bada eta hazten den ilea sendaagoa, ezin daiteke kanpora irten eta infekzio

txikiak sortzen ditu; izan daiteke ilea oso ahula izatea eta azalerara ezin irtetea. Crin eskularruarena ideia ona da, baina erabili beti dutxan esfoliante batekin eta normalean erabiltzen duzun xaboiarekin (azalarentzako zakarra ez dena) eta esfoliantea bikortatze txikiarekin; prozesu hori 15-20 egun igaro eta gero egitea komeni da. Beste aukera bat ere badago: lozio antiseptikoak, grano irtenda dagoenean azkarago osatzen laguntzen dute. Era horretako arazoak ekiditeko irtentzako nahi baduzu, laser bidezko depilazioa gomendatzen dizut.

3. Eskuetako orbanak kendu egin daitezkeen jakin nahiko nuke.

Eskuetako orbanak guztiz kentzea oso zaila da; metabolismo pigmentarioaren ezegonkortasunaren ondorioz sortutakoak dira. Eguzkitan denbora luzeegi egoteak ere laguntzen du orbanak agertzea. Laser bidezko tratamenduak emaitza onak ematen ditu; tratamenduarekin hasia nahi baduzu, uda osterako arte itxaroteko gomendatzen dizut; ez da komeni orbanek eguzkia hartzea bi hilabetez gutxienez.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

Preso hartzea	Zuzen, tente	Tolosaldeko herria	Hemen dagoena	Diru-zigor
		*Deitura	Dut	
Arraza	Emakume izena	Ezer ez	Lapurdikoa udalerria	Azken bokala
*Izena	Leun	Infín., lortu	Gar	Noren atzizkia
		Gorule, irule	Bezainbat	Energia
		Suari dariona	Lasterka, korrika	Nitaren ikurra
Infusio mota	Haragiaren mintza	Infusio mota	Gauza, kapaz	Borroka-kirrol
	Rubidioa	Egoera latz		Kiloa
		Zurezko mailu		Zirkonioa
			Erdi hitz-elkarketan	

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



ALKOHOLA NEURRIAN

Bikote arteko harremani buruzko hitzaldi batera joan da Gorka. Hizlaria, gaiaren inguruko hainbat alderdi jorratu eta gero, edariei buruz hasi da hizketan:

– Bikote arteko arazo askoren iturria alkohola da. Emazteak, sarri, senarrak gehiegi edaten duelako uzten du.

Eta orduan Gorkak:
– Eta zenbat edan behar da hori gerta dadin?

HOSTOEN ARRASTOAN

Udazkena da paradisu. Ebak zuhaitz batetik askatutako hostoa airean jira bueltaka ikusi du:

– Hara! Gizon ikusezina!

MUTIL IDEALA

Azken asteetan gustuko mutilik inon aurkitu ez eta etsita eta desesperatuta dabil Miren. Erosketa batzuk egitera atera eta Kattalin topatu du kalean. Kafetxo bat hartuz hitz aspertuan hasi dira:

– Ba al dakin zein baldintza bete behar dituen nire mutil idealak? — galdetu dio Mirenek Kattalini—.

– Ez zakinat bada.
– Ez din ez erre eta ez edan behar; hitzuna behar din izan, eta ez zidan sekula kontra egin behar.
– Hori erraza dun.
Telebista erosi eta kito!

KLAKETA

– Nork asmatu zuen klaketa? — (!!!)
– Etxean hamabi haur eta komun bakarra zuen batek.

SOLUZIOAK

T	R	E	•	B	I	R	V	G
E	Z	N	T	R	A	N	T	•
K	•	V	A	G	•	E	T	•
N	I	N	A	R	•	K	E	•
I	R	I	L	A	R	I	O	G
R	K	A	R	•	R	O	R	•
T	N	•	N	U	N	B	I	G
•	R	E	R	A	B	X	•	•
N	E	•	A	N	I	E	T	E
U	•	T	Z	•	A	•	•	•
S	U	D	E	•	A	L	D	A
•	H	•	E	•	•	•	•	•



Uztailaren 4a: 050 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, uztailak 4, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.


Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Uztailaren 4ko sariak



- 'LAUBURUA' mahai jokoa Argia argitaletxearen eskutik.
- 'IPUIN KLASIKOAK' liburua.
- ISPILU etxeko kamiseta bat.



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

049
zozketa

saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

ISTILU etxeko kamiseta.

- Iñaki Zelaia larza (Oñati)

ISTILU etxeko neskendako hiru zapi.

- Karlos Etxaniz Suinaga (Bergara)
- Izaskun Gabilondo Jauregi (Aretxabaleta)
- Olatz Arrieta Lizarralde (Antzuola)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Arantxa Arriaran Ugarte (Oñati)
- M. Luisa Agirre Arana (Arrasate)



'Ilunpean'
EGUBAKOITZA, 1 / 21:00 eta 22:30

Maixa Lizarribar trikitilaria elkarrizketatuko dute

Oraingoan trikitilari bat ekarri du Oihana Elortza kazetariak *Ilunpean* saiora: Maixa Lizarribar. Altxokoak kakorrazarekin egiten dituen artelanen eta hondartzara joateko duen zaletasunaren berri emango du saioan.



'Baneki'
ASTELEHENA 4 / 21:00

Port Aventura joateko bidaia jokoan

Iritsi da eguna. Lehian ibili dira IZT, Leixargarateko Artaldie eta Korbutotxoak taldeak eta astelehen honetan jakingo dugu hiruren arteko norgehiagokan nor lortu dituen punturik gehien, eta beraz, nor doan Port Aventura.



'Jaiak 2005'
MARTITZENA, 5 / 21:00 eta 22:30

Herriz herri eta jairik jai ibili dira Goiena Telebistakoak

Ez dago atsedean hartzerik. San Juanak bukatu bezain pronto, Eskoriatzako, Elgetako eta Aramaioko jaiak hasi dira. Eta horiek gutxi balira, domekan San Martzial eguna Bergaran. Guztiaren berri *Jaiak 2005* saio berezian izango duzue.



'Beasaingo Triatloia'
EGUAZTENA, 6 / 21:00 eta 22:30

Beasaingo Triatloia gainekeo laburpena

Uztailaren 2an jokatu dute Beasaingo Triatloia. Debagoieneko ordezkariak, hau da, Oñatiko triatloi taldea eta Antxintxika taldea, han izango dira. Goierri telebistako kamerak hantxe izango dira eta GOITBk eguaztenean eskainiko dizue.

TELEBERRIAK

Astelehenean amaituko da 'Baneki' saioa

Astelehenean jakingo dugu nor den GOITBko *Baneki* saioaren irabazlea. Izan ere, oraingo asteko bi saioetan eta astelehenekoan jokatzen dihardute finalak. IZT (Eskoriatza), Leixargarateko Artaldie (Aretxabaleta) eta Korbutotxoak (Arrasate) dira finalera heldu diren hiru taldeak. Saria da Port Aventura bidaia. Ibarreko 24 taldek hartu dute parte lehiaketan.

Antena 3 katea italiarren esku

De Agostini enpresak eskuratu du Antena 3 katearen jabetza, Planeta editorialaren kaltetan. Lara, Planeta editorialeko jabea, PPTik gertu egoteak eta beste arazo finantzario batzuek eragin dute eskualdaketa.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Uztailaren 1etik 7ra

EGUBAKOITZA 1	ZAPATUA 2	DOMEKA 3	ASTELEHENA 4	MARTITZENA 5	EGUAZTENA 6	EGUENA 7
13:20 Baneki 13:50 Marrakzi bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Behazulo 15:00 Chiloé 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:30 Emisio hasiera Gaurkoak 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak 21:00 Ilunpean: Maixa Lizarribar 21:30 Eguzki lore: Pirineoak misterioak 22:00 Berriak 22:30 Ilunpean 23:00 Eguzki lore 23:30 Gaurkoak 23:45 Emisio amaiera	11:05 Behazulo 11:35 Baneki 12:00 Marrakzi bizidunak: Sherezade 13:10 Harmailatik 13:40 Marrakzi bizidunak: Lazkao Txiki 14:00 Ilunpean 14:30 Bertsolaritza 15:35 Marrakzi bizidunak: Ipar haizearen erronka 16:30 Baneki 17:00 Jaun ta jabe 17:30 Klip@ 17:45 Behazulo 18:15 Jaiak 2005: San Juanak 19:15 Marrakzi bizidunak 20:45 Chiloé 21:15 Klip@ 21:30 Eguzki lore 21:45 Jaiak 2005 22:45 Emisio amaiera	11:05 Marrakzi bizidunak: Ipar haizearen erronka 12:00 Marrakzi bizidunak: Iratxo Magikoa 12:50 Marrakzi bizidunak: Lazkao Txiki 13:15 Jaiak 2005 14:15 Eguzki lore 14:30 Marrakzi bizidunak: Ipar haizearen erronka 15:30 Chiloé 16:00 Marrakzi bizidunak 17:30 Klip@ 17:45 Baneki 18:45 Ilunpean 19:15 Marrakzi bizidunak 20:30 Jaun ta jabe 21:00 Harmailatik 21:30 Bertsolaritza 22:30 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Ilunpean 15:00 Eguzki lore 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 Baneki: Finala 21:30 Chiloé 22:00 Berriak 22:30 Baneki 23:00 Chiloé 23:30 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: Iratxo Magikoa 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Baneki 15:00 Chiloé 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak Iratxo Magikoa 21:00 Jaiak 2005: Eskoriatzako, Elgetako eta Aramaioko jaiak, eta Bergarako San Martzialak 22:00 Berriak 22:30 Jaiak 2005 23:30 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Jaiak 2005 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak: Sherezade eta Lazkao Txiki 21:00 Beasaingo Triatloia 21:30 Chiloé 22:00 Berriak 22:30 Beasaingo Triatloia 23:00 Chiloé 23:30 Emisio amaiera	13:50 Marrakzi bizidunak: Iratxo Magikoa 14:15 Berriak Aurrerapena 14:30 Beasaingo Triatloia 15:00 Chiloé 15:30 Berriak Aurrerapena 15:45 Klip@ 19:40 Emisio hasiera 19:45 Klip@ 20:00 Berriak 20:30 Marrakzi bizidunak: Iratxo Magikoa 21:30 Jaun ta jabe: Oi Lehendakari! 22:00 Berriak 22:30 Jaun ta jabe 23:30 Emisio amaiera
21:00 Ilunpean	18:15 Jaiak 2005	21:30 Bertsolaritza	21:30 Chiloé	21:00 Jaiak 2005	21:00 Beasaingo triatloia	21:30 Jaun ta jabe

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



ESKAINZA BEREZIAK

Kia Picanto
0 km



KIA MOTORS



KIA SPORTAGE
Gasolina/Diesel
19.155 eurotik aurrera*



ESKAINZA BEREZIAK
KIA CARNIVAL
Gasolina/Diesel



KIA CERATO
Gasolina/Diesel
11.300 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g - Arrasate
943 79 22 67 -
Faxa: 943 71 27 38

Adi!

- 3 urteko garantia
- 0 km aukera bereziak

*Preber plana barne.
**Ekainean eta uztailan balioko du eskaintza honek.

HONDA

The Power of Dreams


ESKAINZA BEREZIA

HONDA CIVIC gama osoan**
Auto berriak eta 0 km

DESKONTU SINESTEZINAK
0 km ibilgailuek,
3.000 eurorainoko deskontua!



HONDA CIVIC (5 ate)
Gasoli./Dies.
15.300 eurotik aurrera*



HONDA CIVIC (3 ate)
Gasoli./Dies.
13.300 eurotik aurrera*

Eskaintza honek ekainaren 30etik uztailaren 9ra balio du janari-edarrietan eta drogerian.

3x2

ERAMAN 3 ETA ORDAINDU 2



EROSKI

Erosten jakin

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Mikel Larrañaga 'Maki' / Suhiltzailea

Zenbat suhiltzaile egoten zarete Zubillagako parkean? Hainbat talde ditugu eginda eta talde bakoitzean lau lagun egoten gara. Eguneko 24 orduetan daude lau suhiltzaile.

Sua itzaltzen duena da suhiltzailea?

Kontraesana dirudi, baina suteak itzaltzeko ez digute guri deitzen. Aldundiko hainbat langile eta basoetako zaindariak joaten dira. Guri bakarrik deitzen digute inguruko baserriren bat erretzeko arriskuan dagoela ikusten badute. Gu baserria eta bertan daude-

nak babestera joaten gara, ez sua itzaltzea. Ez, behintzat, sutea kontrolatzeko laguntza eskatzen badute.

Dei asko jasotzen dituzue parkean?

Beste parke batzuekin konparatzen badugu, gutxi.

Beharrik ez dagoelako izango da, ezta?

Izan daiteke. Baina jende askok uste du suhiltzaileok kobratu egiten dugula irteera egiten dugun bakoitzean. Eta hori ez da horrela, irteera ez dugu kobratzen.

Sua ikusten dutenean bakarrik deitzen dute?

Irunen, adibidez, zuhaitzak erori badira errepidera,

suhiltzaileei deitzen diete errepidea libratzeko. Hemen, ez da hori gertatzen.

Errezeloa du hemengo jendeak?

Askotan uste dute gertatu zaiena ez dela suhiltzaileei deitzeko beste garrantzitsua. "Txikikeria honegatik deituko diegu suhiltzaileei?", esaten dute, eta beste toki batera deituz konpontzen dute arazoa.

Suteekin, uholdeekin eta istripuekin bakarrik lotzen zaituztetelako izango da, akaso.

Bai, batez ere mendietako suteekin erlazionatzen gaituzte. Neguan, hala ere, askok deitzen digute elurra kentzeko makinarekin etxeko bidea zabaltzeko eskatuz. Pala horiek, berez, gure beharra duten lekura erraz heltzeko ekarri zituzten, baina dei asko izan ditugu, eta azkenean mugatu egin dituzte irteera horiek.

Eta zertan lagun dezake suhiltzaile batek?

Teilatuko teilak kentzen edo ipintzen, adibidez. Gehienetan deitzen digute giltzak etxe barruan utzi dituztelako eta ezin direlako etxera sartu, adibidez. Joan den astean, berriz, Oñatin izan ginen txakur bat errekatik ateratzen.

Egokitu zaizu inoiz katua zuhaitzetik jaistea?

Bai. Arrasatetik deitu ziguten behin, zuhaitz gainean miauka zebilen katu batek ez ziela lorik egiten uzten eta handik jaisteko eskatuz. Hara joan eta jabeari eman genion katua.

Futbolari izateari erabat utzi diozu?

Alkizarena gertatu zait, nahikoa egin dudala. Orain, Antzuolako mutikoak entrenatzen nabil gustura.

Eibar ez da igo. Pena eman dizu?

Jokalari batzuekin batera jokatu izan dut, lagunak ditut, eta pena hartu nuen, bai. Berdin gertatu zait Real Unioneekin.



"Baserria eta bertan daudenak babestera joaten gara gu, ez sua itzaltzea"

"Katua zuhaitzetik jaisteko deitu ziguten behin Arrasatetik; joan den astean Oñatin izan ginen txakurra errekatik ateratzen"

"Irteera kobratu egiten dugula uste du jendeak oraindik, eta hori ez da horrela"

▶ Antzuola / 34 urte / Zubillagako parkean dihardu

PIPERRAUTSA

Zerotik

Behin Ibarretzek legebiltzarreko koska gaindituta, eta Gernikan zin egin ondoren, hurrengo tramitea zen ezagutzea sailburuen izenak. Aurrez ez zen espero nobedade handirik, nik uste dut denok hartzen dugula Jaurlaritzaren berria jardunekotzat, eta susmoak diosku gauza garrantzitsuak beste nonbait jorratuko direla.

Hala ere, joan den astean jakin genuen EAK aldatu egingo zituela bi sailburu, Iztueta eta Intxaurre. Fakturaren bat zuten ordaintzeko, nonbait, eta ez diete barkatu. Haien ordezkoen artean, bat da arrasatearra, Esther Larrañaga. Bide luzea darama administrazioan, eta trebatuta iritsi da kargura. Badaezpada, zorterik onena opa diot, ingurumen arloan gauzak ondo egitea denon mesederako izango da-eta.

Mezularia-n ari ginen honetaz, tertulian, ea beste aldatetarik espero ote zitekeen. Eta nik bota nuen nola gobernu akordioan jasotzen omen da, Ezker Batuaren arabera, AHTren aldaketa, eta nola EAJK hori ezeztatzen zuten. Horrela, Amann sailburuari erreparatuko niola bereziki, alegia, hura aldatuz gero posible izan zitekeela beste aldaketa ere.

Eta hara non aldatu egin duten Alvaro, nire pozerako. Orain has gaitezke pentsatzen zertarako behar dugun trena eta, horren ondorioz, nolako trena behar dugun. Eta ez alderantziz, orain arte bezala. Has gaitezen trenaz pentsatzen, aurreiritzi eta morrontza barik. Zerotik.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

LORAMENDI

KIROLAK ARRASATE

BEHERAPENAK